

## Kultura

Esperanza Zabala eta Ainhoa Ortellsen margolanen erakusketak hartuko ditu Durangoko Museoak, martxoaren 5era arte > 15



## Barraskiko etxeen kaltetu bati 58.999 euro itzuliko dizkiote

Aste honetan Valentziako Lehen Auzialdiko Epaitegiak emandako epaiaren arabera, Bankia bankuak 58.999 euro itzuli beharko dizkio Barraskiko etxebizitzaren auzian kaltetutako pertsona bati. Defentsaren abokatuen arabera, bankuak ez zuen egiaztatu Norvisak behar zituen aseguruak ote zituen. > 7

## “Munduan 400.000 pertsona daude mugaldeetan. Geldiezina da”

Mikel Zuluaga | Ongietorri errefuxiatuak > 10



Herriko denda eta tabernak lapurren ohiko helburu bihurtu dira azken urte bietan. Kasuak ugaritzen direnean ertzainek zaintza areagotzen dutela onartu dute tabernariak, baina lapurrak harrapatu ditzatela da benetan gura dutena. > 4

## Otxandioko tabernariak lapurretekin gogaituta

## Bigarren mailara igo da aurten Sapuherri

Aurten arte boleibolean eskola kirolean aritu diren Sapuherri taldeko neskek senior mailako bigarren mailara igotzea lortu dute. Momentu honetan, Sapuherri Durangaldean dagoen

goi mailako boleibol talde bakarra da. Garazi Abraldes eta Uri Lasa taldeko beteteranoek aitortu dutenez, “oro har, boleibola kirol baztertua da, eta Durangaldean oso argi ikus daiteke hori”.

Taldeko kideek aurtengo denboraldian hainbat zailtasun izan dituzten arren, aurrera jarraitu eta beraien onena emango dutela azpimarratu dute. Gogotsu dabilta entrenatzen. Giro ona da taldearen ezaugarrietako bat. > 17



### Durango > 2

Ustez Durango bonbardatu zuten pilotuak identifikatu dituzte

### Durango > 3

8.700 bisitari batuta, Berdeagok bigarren asteburua abiatuko du

### Elorrio > 6

Bizkaibus zerbitzua hobetzea eskatu dio udalak Aldundiari

### Abadiño > 6

Idi probak eta burduntzi lehiaketa San Blasen amaieran

## Herririk herri

# Ustez Durango bonbardatu zuten pilotuak identifikatu ditu ikerlari batek

Bonbardaketaren egileak identifikatzea ezinbestekoa da euren kontra auzibidea zabaltzeko

**DURANGO** Jone Guenetxea 1937ko martxoaren 31n, abiazio italiarreko pilotuek Durango bonbardatu zuten. Bonbek eta horren osteko metrailaketek 300 hildako eta beste hainbeste zauritu eragin zituzten. Durango 1936 kultur elkarteak bulzatutako ikerketa batek eraso faxista hori gauzatu zuten pilotuak identifikatzea du helburu. Elkarteko arduradunen esanetan, ikerlari batek ustez eraso gauzatu zuten hiruzpalau pilotu identifikatu ditu. Durangoko bonbardaketaren erantzuleak epaitegietara eramatea da helburua. Horretarako, aire eraso gauzatu zuten pilotuak identifikatzea ezinbestekoa da, bertako

epaitegietan beraien kontrako auzibidea zabaltzeko. Andoni Barreña elkarteko ki-deak dioenez, 1937ko martxo-

Bartzelonako Udalak hango bonbardaketen inguruan hartu duen bidea jarraitu gura du Durangokoak

ren 31tik irailaren 2ra estatu espainiarrean 200 pilotu italiar operatibo egon ziren. Zerrenda hori oinarri hartuta, hiruzpalau identifikatzea lortu dute. Barreñak dioenez, bonbardaketaren inguruan udalean sortutako



Durangon 1937ko martxoaren 31n airetik ateratako argazkia.

batzordean erabaki dutenez, Durangoko Udalak abiatuko du epaitegietan auzibidea, elkar-teak egin beharrean.

Bartzelonako Udalak azken urteotan hiri hartako bonbardaketaren erantzuleak auzitegi-tara eramateko jarraitu duen bidea egin gura du Durangokoak

ere. Horretarako, Bartzelonako udal arduradunekin kontaktuan daude.

### Hiru herriren senidetzea

1937ko martxoaren 31ko batzordea martxan da, eta martxan jarri gura duten beste ekimenetako bat, Bartzelona, Siriako

Kobane hiria eta Durango senidetzea da. Hiru hiriek sufritu dute bonbardaketek eragindako suntsipena. Durangoko gazte talde bat Kobanera joan zen, eta hango alkateak proposatu zien Durangogaz senidetzea. Proposamena begi onez ikusi dute Durangon.

## Errefuxiatuen krisiaz berbaldia eskainiko dute

Ekialde ertaineko egoera hartuko du hizpide Gabirel Ezkurdia nazioarteko politikan adituak



Joan zen zapatuan hileroko elkarretaratzea burutu zuten, Andra Marin.

### DURANGO M.O.

Durangoko Ongi Etorri Errefuxiatuak plataformak berbaldia antolatu du datorren eguaztenerako, hilak 15. Errefuxiatuen krisiari lotuta, Ekialde Hurbileko egoera hartuko du hizpide Gabirel Ezkurdia nazioarteko politikaren analistak. 19:00etan hasiko da hitzaldia, Plateruena kafe antzokian. "Krisi honen arrazoiak argitu gura ditugu, komunikabide nagusien bitartez helarazten zaizkigun egiak zalantzan jarriz, errealitatera hurbildu nahian", adierazi dute plataformakoek oharrean.

Hilero berbaldi bat eskaintzea da euren asmoa, eta hileko lehenengo zapatuetako elkarretaratzeekin jarraituko dute.

## Merkatu libreko tratuak hizpide izango dituzte

Juan Hernandez irakaslea izango da hizlaria

### DURANGO M.O.

Zubiguneak tailer parte-hartzaileak berbaldia antolatu du datorren astelehenerako, hilaren 13rako, merkatu libreko tratatuen ingurukoa. Izan ere, eguaztenean Europar Batasunaren eta Kanadaren arteko tratatu bat bozkatuko dute legebiltzar europarrean, eta gaiaz informatzea gura dute.

Juan Hernandez Zubizarreta ekintzaile eta EHUko irakaslea izango da hizlaria, 19:00eta-

tik aurrera, Pinondo Etxean. Merkatu libreko tratatuek lan eta osasun baldintzetan, ingurumenean edota legedian duten eragina aztertuko dute.

Europar Batasunaren eta Kanadaren arteko tratatu bat bozkatuko dute legebiltzar europarrean

**anboto**   
komunikabideak

Bixente Kapanaga, 9  
48215 Iurreta  
Bizkaia  
Tel.: 946 816 558

Erredakzioa:  
946 232 523

Publizitatea:  
946 217 902  
publi@anboto.org

2017ko otsailaren 10a  
14. urtea - 664. alea

Lege gordailua: BI-2268/01 ISSN: 1578-7028  
Tirada: 11.500 ale

**Zuzendaria:**  
Jone Guenetxea Arrinda.  
**Administrazio burua:**  
Itziar Belar Zubizarreta.  
**Administrazioa:**  
Miren Abasolo Txabarri.  
**Publizitatea:**  
Itxaso Martinez de  
Arenaza Yarza eta Nagore  
Txintxurreta Isasi.  
**Erredakzioa:**  
Aitziber Basauri Gandiaga,  
Itsaso Esteban Urriaga,  
Joseba Derteano Bilbao,  
Markel Onaindia Txabarri,  
eta Maialen Zuazubiskar  
Gallastegi.  
**Maketazioa:**  
Eider Alberdi Bengoa.  
**Zuzentzailea:**  
Mikel Azkarraga Etxegibel.

### Laguntzaileak:



"Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak  
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua"

**Bizkaia**  
foru aldundia  
diputación foral

Aldizkari honek  
Bizkaiko Foru  
Aldundiaren  
laguntza jaso du



# Udal tramiteen %25 kutzazain automatikoan egiten dira

Udala pozik dago Herritarren Arretarako Zerbitzuak izandako emaitzekin



Hainbat herritarrek erabiltzen dute kutzazain automatikoa.

**DURANGO** Markel Onaindia Aitziber Irigoras alkateak agerrialdia egin zuen eguaztenean, Herritarren Arretarako Zerbitzuaren (HAZ) inguruko informazioa eskaintzeko. Orain arte izandako emaitzekin pozik dago udala; herritarrek bulegoan itzaroten duten denboraren batez bestekoa 2,24 minututik 1,16ra bajatu dela nabarmendu zuen alkateak. Bere esanetan, hainbat neurrik eragin dute hori, ordutegia zabaltzeak eta langile kopurua handitzeak, esaterako. Hala ere, kutzazain automatikoaren erabilera da

esanguratsuenetakoa. Izan ere, tramiteen %25 kutzazainean egiten dira gaur egun, errolda agiriagaz lotutakoak batez ere.

Hain justu ere, kutzazainagaz lotutakoa da nobedadeetako bat. HAZeko bulegoan kutzazain berri bat ipiniko dute mar-

Gaur egun han dagoen makina Landako II kiroldegira lekualdatuko dute

txoan, "eragiketa kopurua handitzea erraztuko duen kutzazain eskuragarri eta unibertsal bat". Eta gaur egun han dagoen makina Landako II kiroldegira lekualdatuko dute. Egunean 3.000 herritar inguru joaten dira bertara, eta asistentzia hori ikusita, tramiteak egiteko leku egokia izan ahal dela uste dute udal arduradunek.

HAZeko bulegoan 08:00etatik 18:00etara egoten dira etenik egin barik -barikuetan 14:00ak arte-. Kutzazainaz gainera, 620 86 83 50 telefonoan *whatsapp* zerbitzua ere eskaintzen dute.



Sasikoan beharginak lanean dabilta joan zen astetik.

## Geltokirako zebra-bide berria egiten dabilta

EH Bilduko kideek zebra-bide bat margotu zuten sinbolikoki Sasikoan; orain udala dabil egiten

**DURANGO** M.O.

Sasikoan, tren geltokirako pasagune ondoan, beharginak udalaren enkarguz zebra-bide berria egiten dabiltzala iragarri du EH Bilduk. Abendu erdialdean koalizioko kideek sinbolikoki margotu zuten zebra-bide hori, "udalaren utzikeria" salatuz. Orain, udala bera dabil pasabidea sortzen, ofizialki. Horregatik, oposizio lehen indarrekoek uste dute euren ekintzak fruitua eman duela.

Tren estaziorako sarbidean bertan ez zegoen zebra-biderik, metro batzuetara baizik. EH Bilduk dio zebra-bidea egiten dabiltzan gune hori naturala edo "desira-bidea" dela, jen-

deak berez hartzen izan duela, egon barik ere. Sasikoaz gainera, koalizioek Landakon ere margotu zuten zebra-bidea, abenduan. Orduan, "mugikortasunaren inguruko azterketa orokor bat" behar dela adierazi zuten, Durangoko kaleetan oinezkoen harrapaketa gehiago egon ez dadin.

**"Pozten gaitu"**

Koalizioaren arabera, herritarrek hainbatetan egindako eskaria izan da. "Herritarrek eskean hilabete asko pasatu behar izan dituzten arren, poztan gaitu ikusteak azkenean kasu egin dietela herritarrei", esan du koalizioak gobernu taldea kritikatzeko.



Tesla auto elektrikoa izan zen joan zen asteburuan arretarik gehien batu zuena.

## 7.800 bisitari batuta, aurrera doa Berdeago

Berdeago Nature jardunaldia hasiko da gaur

**DURANGO** M.O.

Ingurumen iraunkortasunaren euskal azokak 8.700 bisitari eduki ditu lehen asteburuan, Berdeago Energy lez bataiatuta jardunaldian. Antolatzaileen

arabera, momentuz iaz baino bisitari gutxiago egon dira, 11.500 lagunek parte hartu baitzuten 2016an. Hala ere, "interesatu gehiago" egon direla nabarmendu dute.

Orain, bigarren saioa hastera prest daude Berdeago Nature ekimenagaz. Jaki eta produktu ekologikoak egongo dira ikusgai. Ekintzei dagokienez, gaur, adibidez, urak osasunerako duen garrantziak berba egingo dute, 17:00etan. Bihar oliba olioaz eta ahuntz gaztaz berba egingo dute 11:30ean, eta artisau garagardoen dastaketa egongo da 13:00etan. Domekan *Gutik Zura* dokumentala emango dute, 18:30ean, Plateruenean.

**clínicadental hortzklinika**  
b. unamunzaga e. etxebarria



ODONTOLOGIA OROKORRA ETA ESPEZIALITATEAK  
08:00etatik 21:00etara ZABALIK

Muruetatorre, 2C blokea, behea - 48200 Durango  
Tel.: 946 819 951 - Mug.: 717 194 454 - uecdental@gmail.com

**anboto.org**  
**MUGIKORREAN**

Albisteak eta agenda,  
bizkor eta eskura.

Telefono gida osatuena:  
zuzenean deitzeko aukera.

Parte hartu, galderak eginez,  
erantzunak lortuz.

Pertsonalizatu, zure herria aukeratu.

**DESKARGATU  
DOAN!**





Jabi Axpe, Nahia Gomez eta Jabi Gorrotxa Otxandioko Artekale kalean.

## “Presentzia areagotzea ez da nahikoa, lapurrak harrapatu ditzatela gura dugu”

Ertzainek emandako azalpenak ez ditu erabat konbentzitu tabernariak, eta irtenbideak gura dituzte

**OTXANDIO** Joseba Derteano  
Azken urte bietan lapurreta asko izan dira herriko taberna eta dendetan. Iaz ertzainak 13 bider joan ziren Otxandiora lapurrengatik, eta aldi bakoitzean bi, hiru edo lau lapurreta izan ziren. Herrian bolo-bolo dabilen gaia da, eta otxandiarrak kezkatuta daude. Joan zen astean ertzainak tabernari eta ostalariekin batu ziren. Zertan dabilzan informatzea eta egoera baretzea zen helburua, eta erdizka lortu zuten. Informazio asko baina irtenbide gutxi eskaini zituztela uste dute ostalariek.

“Batzarrear kontatu ziguten dena bagenekien, guk irtenbideak gura ditugu”, dio Lora tabernako arduradun Nahia Gomezek. Lapurrak behin sartu zaizkio eta beste hainbat saiakera egin dituzte.

Azken asteetan Ertzaintzak zaintzak areagotu ditu herrian. Hori begibistakoa dela dio Danoena tabernako Jabi Axpek. Herriko plazaren ondo-ondoan du taberna, eta handik “askotan” ikusten du ertzainen koitea plazaren erdian. “Gauetz herriar jantzita ibiltzen dira, baina mundu guztiak daki nor-

tzuk diren, hau da, bista-bistan dabilta”, azaldu du. Baina gauza bat da zaintza areagotzea eta

“Nire irudipena da ertzainak gehiago dabilzala lapurrak ikaratu nahian harrapatu guran baino”

beste bat lapurrak harrapatzea. Ildo horretatik, Gomezek batzarrean esandakoa errepikatu du. “Ertzainen presentzia han-

ditzea ez da nahikoa. Lapurrak harrapatu ditzatela gura dugu”. Ikusitakoaren arabera, Axpek ere dudak ditu. “Bai, ikerketa irekita dutela eta lanean dabilzala azaldu ziguten. Egia da, hori horrela bada, informazio gehiegi ere ezin dezaketela eman, baina, hala ere, nire irudipena da gehiago dabilzala lapurrak ikaratu nahian harrapatu guran baino”, gaineratu du.

Jabi Gorrotxa Taberna ize-neko tabernako arduraduna da, eta lapurrak bederatz bider sartu zaizkio bertara. “Kokoteraino” dago, eta batzarrean

deabruaren abokatu jardun zuela onartu du. “Otxandion gertatzen zebilena ezohiko egoera zela onartu ziguten. Hori horrela bada, irtenbideak ere horren araberakoa izan beharko du, ezta? Badakigu lapurretak gaueko ordu jakin batzuetan direna, eta une horietan ere zaintzak beti egingo zituzten, baina ez zidaten erantzun garbirik eman”, gogoratu du.

### Lapurreta kasuak

Otxandioko taberna eta denda denak kale berean eta bata bestearen ondoan daude, erdiguneko Artekalean. Denbora gutxian hainbat tokitan sartzeko modua ahalbidetzen die horrek lapurrei. Horregatik, datozen bakoitzean, hainbat tokitan sartzen dira.

Tabernariak sarraila gehiago jarri dituzte ate eta leihoetan, baina berdin-berdin sartzen dira sarrailak apurtuta edo leihoak babesten dituzten barrroteak bortxatuta. Kutxa erregraitzaleak hutsik egoten direnez, makina txanponjaleak izaten dira jomuga. Taberna batzuek alarmak dituzte, baina hori ere kalkulatu dute. “Lehenengo, alarmerik ez duten tokietara sartzen dira, eta alarma duena azkenerako uzten dute, sartu-irten arin-arina egin eta ihes egiteko”, dio Axpek.

Joan zen asteko batzarrean lapurrak Europa ekialdekoak zirela azaldu zuten ertzainek, talde antolatua eta mota horretako lapurretetan adituak direla.

Behin, lapurrak harrapatzekotan izan ziren ertzainak. Lapurreta baten ostean atzetik jazarri zieten, korrika, baina ihes egitea lortu zutela gogoratu dute tabernariak.

Zaintza areagotuta, lapurreta kasuak gutxitu egin daitezkeela uste dute tabernariak, baina benetan itxaroten dutena Ertzaintzaren ikerketaren emaitza da.

## ‘Finca El Torito’, lapurrek garaipena ospatzeko aukeratu duten txokoa

Elgea: “Edan baino ez dute egin: ardoa, kubalibreren bat, kafea...”

**OTXANDIO** Markel Onaindia  
Yago Diego Elgea eta bere lagunek jai andaluziar bat egin zuten duela zenbait urte, bigantxa eta guzti, berak Andresa Landa ondoan daukan lursail batean. Txantxetan, *Finca El Torito* zioen kartel bat eskegi zuten atean, eta hantxe dirau oraindik. Izen horregaz ezagun da geroztik Diegoren lursaila, txoko bat ere baduena. Bada, Otxandion dabilzan lapurrek euren garaipenak ospatzeko

aukeratu duten lekua da, lasai asko dabilzan seinale. Pelikuletako istorioa dirudi.

Ez dute kasik ezer lapurtu, jan eta edan bai, ordea. “Iaz aitzo batzuk eraman zizkidaten, baina, osterantzean, edan baino ez dute egin: ardoa, kubalibreren bat, kafea... Behin, estufa eta guzti egon ziren, erosotasun guztiagaz!”, kontatu du Diegok. Azken lapurreta gauean ere ez zuten hutsik egin. “Duela hiru asteko lapu-

rretetan ere etorri ziren. Botila bat ardo edan zuten, eta kito”, azaldu du Yago Diegok. Bereaz aparte, beste txoko batean ere sartu izan dira.

Herriko arrain-saltzailea da Diego, eta komertzioetan bizi den kezka ezagutzen du, beraz. “Azkenaldian ertzainak etenik barik dabilta patruilatzen. Baina beti ez dira horrela egongo, eta, amaitzean, lapurrak berriro etorriko dira”, uste du txokoko jabeak.



Azkeneko lapurreta gauean ere sartu ziren ‘Finca El Torito’-n.



*Etxebizitzak salgai 1, 2, 3 eta 4 logelatakoak*



### **KAFE ANTZOKIA - MONTEVIDEO**

*Durangoko herrigunean*

*Energia eraginkortasun handiko etxebizitzak*

*Hiriko txaletak*

*Oiz mendira begiratokiak*

*Leku zabalak*

**Etorri  
ikustera!**

**ZARATE ELEXPE**  
E R A G I L E A K

[www.zarateyexpe.com](http://www.zarateyexpe.com)  
Tel.: 946 816 673

**Kontsultatu beste aukerak Iurretan, Elorrion eta Durangon**

# San Blas jaiak amaitzeko, idi probak eta burduntzi lehiaketa

Otsailaren 18an egingo dute Burduntziko Bildots lehiaketaren XXIX. edizioa



Eguraldia lagun izan zuten barikuan azokara joan zirenek.

**ABADIÑO** Itsaso Esteban  
Otsailaren 3ko jaiegun handia eta asteburuko jai egitarauko ekintzak burututa, Burduntziko Bildots txapelketa eta idi probak dira San Blas jaietako azken hitzorduak. Gaur, bihar, eta etzi jokatu dituzte San Blas egunean hasi zituzten idi proben azken saioak, eta otsailaren 13an egingo dute sari banaketa. Otsailaren 18an, probaleku ondoan egingo dute, bestalde, Burduntziko Bildots Txapelketa. Txapelketa horretan parte hartu gura izan dutenek gaur arte izan dute izena emateko aukera, eta, udalak jakitera eman duenez, guztira 50 bildots erreko dituzte otsailaren 18ko hitzordu horretan. Hiru sari banatuko dituzte. Lehen hiru sailkatuek 100, 60 eta 40 euroko saria eta garaikur bana jasoko dute, hu-

rrenez hurren. Laugarren eta bosgarren postuan sailkatzen direnek, aldiz, garaikurrak jasoko dituzte saritzat.

Urteroko ohiturari jarraituz, 300 laguntzako bazkaria egingo dute Burduntzi txapelketaren ostean, probalekuan. Lehiaketako parte-hartzaileek ezezik, gura duten herritar guztiek izango dute bazkari horretara joateko aukera, otsailaren 13tik aurrera Udal Mediatekan eta Errotan eskuragai izango diren txartelak erosita.

## Azoka egun bikaina

Haizetsua baina eguzkitsua izan da aurtengo San Blas eguna, eta milaka lagunek ez dute hutsik egin urteroko hitzordura. Jose Luis Navarro Abadiño-ko alkateak joan zen barikuan egingako adierazpenen arabere-

ra, “balantzea bikaina da. Egun aparta izan dugu”.

## Abeltzainen sariketa

Ohi bezala, askotariko ekintzak izan ziren otsailaren 3ko azokaren bueltan, San Blasetan. Abere-lehiaketa esaterako. Murrizketak zirela-eta 2014an eta 2015ean bertan behera utzi zuten lehiaketa hau, baina iaz berreskuratu egin zuten, eta aurtengo saridunen zerrenda publiko egin du udalak. Karlos Ibarrondo elorriarrak jaso du abere sorta onenaren saria, limusin arrazako bere behiengatik. Aitor Bilbaori eman diote, bestalde, zezen onenaren saria, bigarren urtez, eta Ibon Lasuen 26 urteko abeltzain abadiñarrak jaso ditu behi onenaren eta txahal onenaren sariak. Iaz ere sariduna izan zen Lasuen.

## Goienener energia berriztagarri buruz arituko da berbaldian

### MALLABIA J.D.

Goienener energia berriztagarrien kooperatibako kideek hitzaldia eskainiko dute Mallabian. Datorren asteko egunean izango da, 19:30etik aurrera, Kontzejzarrean.

Azken asteetan elektrizitatearen prezioei buruz sortu den kezka eraginda antolatu du herritar talde batek hitzaldia. Hain zuzen, Goienener-ek subiranotasun energetikoa berreskuratu gura du, egun sektore elektrikoan liberalizatuta dauden esparruetan sartuz: merkaturatzea (energia erosketa) eta sorkuntza.

## Norbanako baten interesari egotzi diote Plana ez onartzearen errua

### IZURTZA J.D.

Epai batek Hiri Antolamendurako Plan orokorra atzera bota izanaren errua “norbanako baten neurribako interesari” egotzi dio Lorea Muñoz alkateak ohar batean. “Epaiaren atzean 5.000 metro karratuko lurjabe baten interesa dago. Udalarari 12,5 milioi euroko ordainketa exijitzen zion, 1995eko arau zaharretan bere lurrak sistema orokorrean kalifikatuta zeudelako”, azaldu du. Epaiak eskaera hori ez zuen onartu, baina bai Plana atzera botatzeko zerrendatzen zituen arrazoietako bat.

## Adisbask banatzaileen elkartearen egoitza Zornotzara ekarri dute

### ZORNOTZA J.Derteano

Adisbask elikagaien eta edarien banaketan lan egiten duten hainbat enpresa batzen dituen elkarte da. Batez ere hotel eta

jatetxeetarako banaketetan zein *catering* arlokoetan dihardutenek osatzen dute. Orain arte, Adisbask-ek Bilbon zuen bere egoitza, baina, aurreran-

tzean, Zornotzako Zelaieta Zentroan izango du. Zornotzara ekarri dute.

Gaur egun Bizkaiko eta Gipuzkoako 40 enpresa dira Adisbask-eko bazkide, eta epe laburrean Arabako enpresak ere batzea du helburu nagusietako bat. Horregatik erabaki dute egoitza Zornotzara ekartzea. “Geografikoki ondo kokatuta dago hiru lurraldeak ordezkatzeko, eta gure filosofiagaz bat dator”, azaldu du Adisbask-eko presidente Josean Sanchok.

Adisbask-ek datozen urteei begira duen erronka nagusietako bat sektoreko enpresetako ibilgailuak erregai alternati- boen etorrerara prestatzea da.



Josean Sancho Adisbask-eko presidentea eta Andoni Agirrebeitia alkatea.

**hitz** #gomendioak  
liburudenda  
artekalea 23, durango  
946 810 776  
info@hitzliburudenda.com

HELDUENTZAT <b>HARRIA</b> Juan Manuel Uribe (2016)	UME ETA GAZTEENTZAT <b>ENEKO ARITZA</b> Rekalde & Larratue (2016)	MUSIKA <b>TOURISTES</b> Vieux Farka Touré & Julia Easterlin (2015)

**Podología**  
R.P.S. 21406

**Podinara Urreta Jainaga**

**OINETAKO PATOLOGIAK  
NEURRIRA EGINDAKO PLANTILLAK  
OINETAKO BESTE HAINBAT GAITZ**

**IMQ MAPFRE**

Herriko gudarien kalea, 10 behea - DURANGO - Tel./Faxa: 946 215 404

# Barraskiko etxebizitzaren auziko kaltetuetako bati 58.999 euro itzuli beharko dizkiote

Bankia bankuak itzuli beharko dio dirua Norvisa enpresak eragindako kaltetuetako bati



Barraski inguruko etxebizitzak.

**ATXONDO** M. Zuazubiskar  
Aste honetan Valentziako Lehen Auzialdiko Epaitegiak emandako epaiaren arabera, Bankia bankuak 58.999 euro itzuli beharko dizkio Barraskiko etxebizitzaren auzian kaltetuta irten den kide bati.

2008an Norvisa enpresak bost eraikineko eta 52 etxebizitzako proiektua hasi zuen Atxondon, Barraski inguruan. Hiru fasetan burutzeko asmoa zuen. Lehen fasean sustatzaileak etxebizitza bloke bat egin zuen, baina horiek ez ziren banatzera

heldu. Eta bigarren eta hirugarren fasean, eraikinen egiturak baino ez zituzten altxatu.

**Arazoak, nonahi**  
Barraskiko etxeen proiektuak hainbat arazo eman zituen hasiera hasieratik. 2010ean, Atxondoko Udalak proiektua geldiarazi behar izan zuen, Norvisa enpresa sustatzaileak ordainketak egiteari utzi ziolako. Garai horretan, 300.000 euro inguru zor zizkion enpresak udalari.

2010etik lanak geldituta egon ondoren, 2012ko uztailean Nor-

visa sustatzaileak eta udalak akordioa lotu zuten, eta ordura arte blokeatuta zeuden lanak

**Bost eraikineko eta 52 etxebizitzako proiektua gauzatu gura zuten Barraski inguruan**

berririo hasi zituzten. Norvisak zorren zati bat ordaindu eta udalak urbanizazio lanak amaitzeko baimena eman zion enpresa

sustatzaileari, proiektua desblokeatuz. 2013tik, berriz, egin da zegoen etxebizitza blokea okupatuta dago. 2008an hasi eta bukaerarik izan ez duen proiektuan hainbat dira kaltetuak, hainbat eroslek etxebizitza planoaren gainean erosi zuten eta.

## Sententzia

“Sei urte igaro diren arren legea hasi da justizia egiten” adierazi du kaltetuaren abokatu bulegoko zuzendari Marta Serrak.

Serrak jakitera eman duenez, Bankia bankuak (garai hartan Bancaja) ez zituen legeak eskatzen zizkion betebeharrak bete. Hau da, abokatuak esan duenez, Norvisak seguru guztiak zituela egiaztatu gabe Bancajaren kontu bat zabaldu zion sustatzaileari, eta herritarrek planoaren gainean etxebizitzak erosten hasi ziren.

“Bankuak egin beharrekoak egin ez zituenez, orain bera bihurtu da erantzule nagusia. Bera da Norvisaren abal-emailer. Beraz, berak itzuli beharko die dirua, interes eta guzti, Barraskiko etxebizitzaren auzian kaltetuta irten direnei”, gaineratu du abokatuak.

Sententzia hau Barraskiko etxebizitzaren auziko lehenengoa da. Kasu honek hainbat kaltetu eragin zituen Atxondon.

## Hazilan programaren bigarren edizioa, martxoan prest

**DURANGALDEA** M. O.

Gazteen laneratzea sustatzeko helburua duen Hazilan programaren bigarren edizioa martxoan ipiniko du, martxoan, Durangaldeko Amankomunazgoak, Behargintzaren bitartez. Proiektua goi mailako ikasketak dituzten eta lana topatu ezinik dabilen 20 eta 35 urte bitarteko gazteei zuzenduta dago. Interesa duten gazteek informazioa eskatu ahal dute Behargintzaren egoitzan.

Lana topatu ezinik dabilen 20 eta 35 urte bitarteko gazteei zuzenduta dago

Baldintzak betetzen dituzten hautagaien artean aukeraketa prozesu bat burutuko du Behargintzak, curriculumak aztertuta eta elkarrizketak eginda.

## Bi fasetan

Bi fasetan garatuko da Amankomunazgoaren programa. Lehenengoan, gaitasun pertsonalak eta profesionalak indartzeko trebakuntza jasoko dute partaideek, eta bigarrenetan, praktikak egingo dituzte enpresetan.

## HAZren jarduera zehazteko ordenantza onartu dute

**IURRETA** Aitziber Basauri  
Herritarren Arretarako Zerbitzua (HAZ) arautuko duen ordenantza onartu du Iurretako Udalak aho batez, azken udalbatzarrean. Araudi horrek HAZren eginkizun eta jarduerak zehaztuko ditu.

Badago Herritarren Arretarako zerbitzua Iurretan. Sei urte dira zabaldu zutela. Orain,

zerbitzu hori ordenatu gura dute. Zerbitzu “integral” bat eskaini gura dute, leihatila bakarra sortu. Horretarako, jendaurreko ordutegia zabalduko dute.

Langileak trebatzea ere bada asmoa, herritarrek izan ditzaketan ahalik eta zalantzarik gehienak argitzeko. Bidebarrietako bulegoan egokitze lanak ere egingo dituzte.



Bidebarrieta kalean dago Herritarren Arretarako Zerbitzua.

## Eskiatzera joateko plana gazteentzat

**ZALDIBAR** I. E.  
Martxoaren 4rako, Errioxako Valdezcaray eski-estaziora irteera antolatu dute Eskoriazta, Arrasate, Aretxabaleta eta Zaldibarko gaztelekuak. Otsailaren 26ra arte, Gazte Lekuan eman ahalko dute izena eskiatzera eta snowa praktikatzera

Otsailaren 26ra arte, Gazte Lekuan eman dezakete izena irteerara joan gura dutenek

joan gura duten gazte zaldibartarrek. Eskiatzeko materiala norberak eramanez gero, 30 euro ordaindu beharko dituzte izena emateko, eta materiala alokatu behar izanez gero, aldiz, 50 eurokoa da prezioa.

Zure lanarekin

# HAZILAN

Lana lortzeko bidea

Goi-mailako ikasketak dituzten eta langabezian dauden 20-35 urteko gazteentzat da.  
[www.hazilan.eus](http://www.hazilan.eus)

Interesa baduzu, jarri harremanetan Durangaldeko Behargintzarekin.  
IZENA EMATEKO AZKEN EGUNA: OTSAILAREN 21a  
Laubideta, 6 Durango  
Tel.: 946 232 522 - [www.mdurango.org](http://www.mdurango.org)

Durangaldeko Behargintza Garapen

# Ordenantza bidea lantzen, herri galdeketak egin ahal izateko

EAJk pasa den astean aurkeztu zuen parte-hartze prozesua bideratzeko araudia



Herriko talde politiko bakoitzak bere araudia aurkeztu du.

**ELORRIO** M.Zuazubiskar  
Herritarren partaidetzarako pausoak ematen dabilta azken aldian Elorrion. Izan ere, herri galdeketak egiteko, ordenantza bat lantzen dabilta EH Bildu (gobernu taldea), EAJ eta Herriaren Eskubidea alderdiak.

Esaterako, pasa den astean, EAJk herritarren parte-hartzea, informazioa eta gardentasuna normalizatzeko ordenantza aurkeztu zuen udalean. Oposizioko taldeak jakitera eman zuenez, agiriak bilkuretan eta batzordeetan parte hartzeko eskubidea zehazten du.

Joseba Mujika zinegotziak aitortu zuenez, “EAJren iritziz, ezinbestekoa da herritarrekin parte hartzeko bideak irekitzea eta hauei babes legala ematea”. Beraz, hori lortzeko bidean, eta prozesu horiek arautzeko asmoz, araudia aurkeztea erabaki zutela esan zuten.

**Ordenantza garatzen**  
Gobernu taldeak, berriz, udalak etorkizunean galdeketak antolatzeke gaitasuna izan dezan, 2016tik ordenantza garatzen dabilela jakitera eman du. EH Bilduk azaldu duenez,

irailean aurkeztu zioten beraien proposamena oposizioari. Orain, berriz, oposizioaren — Herriaren Eskubidearen zein EAJren — araudiak aztertu, eta denen artean landuko dituztela adierazi dute.

Idoia Buruaga alkatearen hitzetan, “Horrelako ordenantze udal barruan barne lan-keta sakon bat behar dute, eraginkorrak izan daitezten. Beraz, oposizioko taldeek aurkeztutako proposamenei geurea gehituko zaie, eta udalean gauden alderdi guztiok elkarlanean eztabaidatuko ditugu”.

# Gaztetxearen 29. urtemuga ospatuko dute zapatuan

22:00etan hasiko dira kontzertuak Gaztetxean

**ELORRIO** M.Z.

29 urte pasatu dira jada Elorrion gaztetxea sortu zutenetik. Une hori gogoratzeko eta urteurrena ospatzeko asmoz, egitarau zabala antolatu dute gaztetxeke kideek otsailaren 11rako.

Bihar 10:30ean hasiko dute urteurren eguna Erreka kalean, graffiti tailer batez. Ondoren, 12:30ean, artisten potea egingo dute gaztetxean, eta 14:00etan, berriz, urteroko omenaldia egingo dute elorriarrek San Josen.

Omenaldi osterako, bazkaria antolatu dute Elorrioko gaztetxeke kideek, 14:30erako. Eta bazkari ostea alaitzeko, gazteek jolasak antolatu dituzte.

Arratsaldean, 18:00etan, familia argazkia egingo dute herriko gaztetxean, eta 19:30ean Mud Candies taldeak kontzertua eskainiko du, bertan. Az-

Bihar ospatuko dute Elorrion herriko gaztetxearen 29. urteurren jaia

kenik, jai egunagaz bukatzeko, 22:00etan, Bad Sound Sistem eta Garila 26 taldeek kontzertua eskainiko dute, eta, jarraian, DJ ElvisCainok jarriko du festarako musika.



Bad Sound Sistemek kontzertua eskainiko du gaztetxean.



Bizkaibus zerbitzua hobetzea gura du udalak.

# Bizkaibus zerbitzua hobetzea eskatu dio Elorrioko Udalak Aldundiari

**ELORRIO** M.O.

Udalak Bizkaibus zerbitzua hobetzeko eskatu dio Aldundiari. Besteak beste, goizeko lehen orduetan masifikazioa egoten dela adierazi du udalak, eta Leioako kanpusetik bueltan konexio arazoak ere izaten direla. Udaleko ordezkariak Aldundiko

garraio zuzendariagaz batzartu dira horretaz berba egiteko.

Udalak prentsa ohar bidez azaldu duenez, autobus erabil-tzaile talde batez batu ziren, eta horren ondorioz egin dituzte eskaerak. Iguria auzoan geltoki bat ipintzeko beharraz ere mintzatu da udala, eta handik herri-

gunera joateko oinezkoentzako bide seguru bat ere eskatu du. Zuzendariak hilabeteko epean erantzungo duela esan ei die.

“Elorriok duen garraio publiko bakarra autobusa izanik, gaur egun dugun zerbitzua hobetu beharra” dagoela uste du Idoia Buruaga alkateak.

MATERIAL DE CONSTRUCCION  
**MACOBER**

Eraikuntzarako materiala  
**MACOBER**

Zeramika eta gresa

Eitua industriagunea, 66 BERRIZ  
Tel.: 946 827 890 macober@movistar.es

katerin ardoak  
iñaki uribe

saltsan

Eguneko menuak - Asteburuetakoko menu bereziak  
Delikatessena - Ardoteka

KURUTZIAGA 40 48200 DURANGO T/F 946 200 427

saltsan.com



# Plataformak ez du gura Susa auzia erantzuleak aurkitu gabe ixtea

Isoird alkateak eta Landa abokatuak egin zuten Berriz Susaren aurkezpena

**BERRIZ** M.Z.

Iazko apirilaren 26an epaitegiak Jauregizahar enpresa sustatzailerari arrazoia eman zionetik —Berrizko Udalak 1.823.526,84 euro ordaindu beharko dizkio enpresa sustatzaileari Berriz Susak 2006an txarto egindako adjudikazio batengatik— Berriz 1,8 milioi zergatik? plataformak eta EH Bilduk erantzuleak bilatzeko eskatu diote gobernu taldeari.

Atzo, epaia jakin zenetik ia hamar hilabete igaro direnean, Orland Isoird alkateak eta Juan Landa abokatuak Berriz Susa sozietatearen ibilbidearen azalpena egin zuten herriko Kultur Etxean.

“Ahalegina egin dugu herriari isun honek ahalik eta kalterik gutxien egin diezaion” adierazi zuen Isoird alkateak, eta isuna hamar urtean ordainduko dutela adierazi zuen.

Horrez gain, Landa abokatuak esan zuen momentu hartan erabaki guztiak EAJk, PPK eta PSOEk aho batez hartu zirela (garai hartan Ezker Abertzalea ilegalizatuta zegoen), baita Jauregizaharren errekurtsioagaz jarraitzea ere. Gainera, Berriz Susak “aholkularitza ona” izan zuela adierazi zuen.

Batzarrera bertaratu ziren herritar batzuek, berriz, ez zi-



Eguaztenean Kultur Etxean egindako batzarrean

tuzten abokatuaren hitzak ondo hartu, eta aholkulari teknikoak ezin izan zela ona izan erantzun zioten Landari.

## Susaren desegitea

“Azken urteetan, Berriz Susaren desegitea planteatzen ari gara, jasangarria ez delako. Beraz, likidatutakoan, desegiteko asmoa daukagu”, jakinarazi zuten Isoirdek Kultur Etxeko aretoan batutako herritarrei. Adierazpen horien aurrean Gorka Camara EH Bilduko zinegotziak azaldu zuenez, EAJk izan zuen Susa desegiteko aukera, baina, “ez zuten gura izan”.

## Inbestigazio batzordea

Bestalde, Jauregizaharrek errekurtsioa aurkeztu zuenean aurrera zergatik egin zuten galdetu zieten herritarrek EAJko kideei. Bertaratutako hainbat herritarrek Berriz Susan gertatutakoaren erantzuleak bilatzeko eskatu zuten. Ildo horretatik, EH Bilduko Karmen Amezuak gai hau lantzeko ikerketa batzordea noiz sortuko den galdetu zion alkateari. Isoirdek batzordea sortuko dutela baieztatu zuen. “Guk proposatutako ikerketa batzordea aztertzen gabiltza, baina, bai, egingo dugu”, erantzun zion alkateak.

## Jolasgune berria segurtasun ziurtagiriaren zain

**MAÑARIA** J.D.

Mañariko umeendako jolasgune eraberritua laster egongo da zabalik. Horretarako, pauso gutxi batzuk falta direla azaldu du Endika Jaio alkateak. Jolasguneako lanik gehienak burutu-ta, segurtasun neurri guztiak betetzen dituen egiaztatze ordua da, eta orain ziurtagiri hori lortzeko prozesuan sartuta daude. “Data zehatzik ezin dezaket eman, baina laster egongo da zabalik”, adierazi du Jaio alkateak. Kioskoa birmoldatu eta jolasgune bihurtu dute. Inguruan egurrezko hainbat jolas jarri dituzte.

## Baso baten erabilera lehiara ateratu du udalak

**GARAI** J.G.

Herriko baso baten aprobetxamendua lehiaketara ateratu du udalak. Hain zuzen ere, Lasiar mendi inguruko baso bat da, eta lortu ahal izateko lehia prozedura irekian garatuko dute. Informazioa eskatu eta proposamenak aurkezteko, udallexera jo behar da, astelehen, martitzen edo eguen goizetan, edo eguazten arratsaldetan.

**SEI HANKAKO MAHAIA**

**PILAR RIOS**  
PSE-EE



## Adineko pertsonen bizi-kalitatea

Durangoko biztanle guztien %18,34 hirurogeita bost urtetik gorakoa da, guztira 5.353 pertsona. Eta 1.840 lagun 80 urtetik gorakoak dira, hau da, %6,30. Gure ustez, ezinbestekoa da lan egitea haien bizi-kalitatea eta autonomia hobetzeko. Horregatik, hainbat ekimen lantzen ari gara une honetan. Batetik, diru-laguntza eman nahi diegu adineko pertsonen instalazio elektriko zaharrak berritzeko eta bainuontzien ordeztuak jartzeko. Era horretan, haien autonomia sustatzeaz gain, segurtasuna ere bermatuko dugu. Azterketek frogatzen dutenez, adineko pertsonen etxeetan ohi-koak izaten dira labainkaden edo suteen ondorioz izandako ezbeharrak. Guk aurrea hartu nahi diegu mota horretako ez-beharrei, eta saihestu nahi ditugu instalazio elektrikoaren egoera kaskarrarengatik izandako hutsegite elektrikoak, batez ere eraikin zaharretan izaten direnak.

Bestetik, adineko pertsonentzako jantoki-zerbitzua nabarmendu nahi dugu. Ekimen berri horretan 50 txartel baino gehiago daude gaur egun, eta dozena bat lagun joaten dira horra eguneroko. Pertsona horien elikadura eta osasuna hobetzeaz gain, ekimena onuragarria izan da harreman sozialak sendotzeko.

Horrez gain, beste zerbitzu batzuk ditugu abian udalerrian: ‘Mugi zaituzte-Muévete’ programako jarduerak, auzoetara eramane ditugunak, arreta psikosozialeko tailerrak, keak detektatzeko doako zerbitzua, giltzak Udaltzainguan uzteko zerbitzua, eta oinezkoen alderdirako sarbidea mugikortasun urriko edo narriadura kognitiboko adineko pertsonen sendeentzat.

## DURANGALDEA ASTEON

### Ruben Garate gogoratuko dute

**OTXANDIO** > Kartzelara bisitan zihola hil zen Ruben Garate otxandiarra, 2000ko otsailaren 13an, eta egunotan urteurrena denez, bera gogoratzeko eta dispertsioa salatzen ekitaldiak prestatu dituzte bihar. 09:30ean Motxotegira mendi irteera burutuko dute, 15:00etan bazkaria, eta 23:00etan kontzertuak.

### Aukera Azoka egingo dute pilotalekuan

**BERRIZ** > Gaur eta bihar Aukera Azoka egingo dute pilotalekuan Berrizko Merkataria Elkartearen kideek, 16:00etatik 20:00etara bitartean. Beharrez gainera, gaur, barikua, 17:00etatik 19:00etara umeentzako tailerrak egingo dituzte eta bihar, 17:00etatik 20:00etara, ludoteka egingo da.

### Kontzertu ekonomikoaz jardungo dute 14an

**DURANGALDEA** > Bizidun nagusi aktiboen elkartearen eskutik, kontzertu ekonomikoari buruzko berbaldia egongo da hilaren 14an, martitzenean, San Agustin kulturunean. Pedro Luis Uriarte Eusko Jaurlaritzako kontseilari ohia izango da hizlaria. Arratsaldean da hitzordua, 18:00etatik hasita.

## IRITZIA

astekaria@anboto.org  
asteartea 17:00ak arteko epea

### Zure iritzia, gutuna edo fotodenuntzia helarazteko helbideak:

Bixente Kapanaga 9, 48215 - Iurreta • Izen-abizenak • telefonoa • helbidea • Nortasun Agiriaren zenbakia

### DATUOK BARIK EZ DA GUTUNIK ARGITARATUKO

Alderdi, elkarte edo taldeko iritziak kide baten izenean sinatuta eta ANBOTOn irizpideen arabera zuzenduta publikatuko dira. Bidalitako testuak ezingo du 1.500 karaktere baino gehiago izan (tarateak barne).

ANBOTOk ez du bere gain hartzen kolaboratzaileen zutabeetan iritzi artikuluetan edo gutunetan adierazitakoan eta emandako iritzien erantzukizunik.

### Aramotzeko txabolez

“Indar bidezko desalojoa saihestea, duintasuna errespetatzea...” Ze moduz hurrengo gehitzen badugu?: “Txaboletan bizi direnen giza eskubideak babestea”. Bai, hori da, horrela ondo geratzen da. Badaukagu prentsa oharra prestatua.

Udaleko jaun-andreok, benetan hori sinesten duzue? Durangarrek hori sinesten dutela uste duzue? Anboto berriro ere elurtuta dago, eta aste osoan ez du ia atertu. Bitartean, errumaniarrek han jarraitzen

dute, hotzez dardarka; elbarri eta kasik ibili ezinik dabilen gizona dagoeneko labaindu eta jausi ez bada behintzat.

Ekintzak behar ditugu, udaleko jaun-andreok; txaboletan bizi direnen onerako, Aramotzen onerako eta Durangoren onerako ere bai. Ekintzak behar ditugu, ez fikziozko prentsa oharrik.

Unai Madariaga (Durango)

## **> Berbaz**

Mikel Zuluaga Uriarte | Ongietorri errefuxiatuak kidea | Bilbo, 1955

# “Ezin dugu onartu muga, lerro, hesi edo itsasarte batek pertsonak hiltzea”

Zornotza Aretoan antolatutako Ongietorri errefuxiatuak zineklubean parte hartuko du Zuluagak

**> BERBAZ** Aitziber Basauri  
Zornotza Aretoak antolatutako ‘Ongietorri errefuxiatuak’ zineklub zikloan parte hartuko du Mikel Zuluagak, otsailaren 14an. Bera eta Begoña Huarte atxilotu egin zituzten Grezian, errefuxiatu talde bat Euskal Herrira ekartzen saiatzeagatik. Legez kanpoko migrazioa leporatu diete, eta, momentu honetan, behin-behineko askatasunean daude, epaiketa-zen zain. Desobedientzia zibilaz eta errefuxiatuekin gertatzen ari denaz jardun dugu beragaz.

‘Distric Zero fila’ filma eskainiko dute, martitzenean, Zornotza Aretoan. Munduko errefuxiatu esparrurik handienetako batean, Zaatari (Jordania) dagoen Al-Wadi da protagonista. Gaur gaurko gaia da hori. Bai. Egun, Grezian 60.000 pertsona inguru daude errefuxiatu kanpamentuetan, baina, Kenian (Afrika), adibidez, 400.000 errefuxiatu batzen dituen kanpamentu bat dago. Hiri bat. Han 600.000 pertsonatik gora daude kanpamentuetan bizitzen. Hala ere, esan behar da errefuxiatu guztien erdiak baino gehiago ez daudela kanpamentuetan. Askok mugaldean inguruan daude, hara-hona, hirietan... Arazo larria da ondo kudeatzen jakin ezean. Asian, Afrikan... errefuxiatu kanpamentu piloak daude, eta askok ez ditugu ezagutzen.

**Grezian hainbat kanpamentutan egon gara. Zein da egoera?**  
Vasilikako kanpamentuan milaka errefuxiatu daude, eta Atenasen hainbat etxe daude okupatuta. Plaza hotela, eskolak... milaka etxebizitza daude errefuxiatuek okupatuta. Horiez gain, beste asko eta asko hirian daude, bizimodua aurrera ateratzen. Kanpamentu batean sartzean zer egin erabaki behar du, asiloa eskatu ala ez. Eta askok ez dute gura.

**Ceutatik (Espainia) etorri berria zara. Zein da egoera han?**  
Ceutan eta Melillan bizi dute bidegabekeria izugarria da. Egoera desberdinak dira guztiz. Denetarik dago, baina, ‘kan-

pamentuetan ezinbestean gertatutako’ familiak dira, batez ere, Grezian daudenak. Umeekin familia mugitzea askoz zailagoa da, eta seme-alabarik ez duten gizonak mugitzen dira gehien. Aldiz, Ceutan eta Melillan, mi-

laka lagun daude hesiaren inguruko mendietan, zain. Egoera muturrekoa eta jasanezina bizi dute. Kontzertina-xaflez betetako sei eta hiru metroko hesietatik egiten dute salto, talde handietan, harrapatu ez ditzaten.



Begitu

**Zelako egoerak ezagutu dituzu Ceutan?**

Oso egoera gordinak. Tarajalen egon gara, Ceutako hesia, zati batean, isatsoan sartzen den inguruan. Itsasotik sartzen dira ihes egiteko, baina gehienek ez dakite igeri egiten. Batetik, Espainiako poliziak gomazko balekin hartzen ditu, eta, bestetik, marokoarrek ez diete uzten bueltatzen. Ito egiten dira asko. Ez dakigu zenbat milaka pertsona ito diren. Ezin da onartu. Muturreko egoera da hau, historikoko pasarterik ilunenetariko bat bizi dugu. Urruneko dirudi, baina, neurri batean, basakeria horren erantzukide gara. Sirian ere, adibidez, hainbat dira aliantzak, batzuen eta besteen babesak dutenak. Gobernuari eta oposizioari laguntzen diegu.

**Euren herrialdeetatik ezinbestean ihesi datoz errefuxiatuak.**

Bai. Etxea bonbardatu ostean, edozeinek egingo luke ihes albokoaren etxera. Eta albokoaren etxea ere, edo hiria bonbardatuz gero, normala da tokiz aldatzea. Euskaldunok ere egin dugu hori. Basamortutze itzela egonik, urik ez dagoen tokitik ura dagoen tokira joatea normala da; ezin gara urik gabe bizi. Ablazioa existitzen den herrialde batean, aitzak ablazioa egitera behartzen bazaitu eta

“**Desobedientzia zibilak gobernuak interpelatzen ditu, baina, norberaren burua ere bai**”

“**Inor ez da jaiogura duen tokian. Arbitrariora da, guztiz. Naturaren jolasa**”

amak ezetz badiotsu, amak leku horretatik irteten laguntzea normala da. Euskal Herriak abegi-lurraldea izan behar du. Hala uste dugu Ongietorri errefuxiatuak mugimenduan.

**Errefuxiatu talde bat Euskal Herrira ekarri guran atxilotu zintuzten Begoña Huartegaz Grezian. Europako migrazio legeekiko desobedientzia erakusteko, salaketa politikoa ere egin duzue. Nola ikusten duzue izan duen oihartzuna?**

Harrapatu gintuztenean bildur handia genuen errefuxiatuegatik, baina, pixkanaka, arintzen joan zen sufrimendu hori. Aske utzi zituzten. Gure alde deklaratu zuten, eta abokatuak ekimenak izan zuen oihartzuna azaldu zigun. Porrota garai-phen bihurtu zuen mugimenduak. Ekintzak sinbolikoak dira, ez dira nahikoa egoera konpontzeko. Baina egoerak berean jarraitzen du, eta lanean jarraituko dugu. Beste bide batzuk topatuko ditugu.

**Kontzientziak astintzeko modua da desobedientzia zibila?**

Desobedientzia zibilak gobernuak interpelatzen ditu, baina, norberaren burua ere bai. Hori du ona. Munduan 400.000 pertsona daude mugaldeen. Mugimendu geldiezina da. Ezin dugu onartu muga, lerro, hesi edo itsasarte batek pertsonak hiltzea. Elkartasunaren bidetik joan behar dugu. Denbora luze-rra landu beharreko kontua da, Euskal Herria berriz ere abegi-lurralde bihurtzeko.

**Nola erantzuten du jendeak?**

Badago elkartasuna. Egoera ulertzen dute. Baina, herri guztietan dago lo dagoen xenofobia. Denbora luze transmititu digute desberdina denari beldurra. Gizarte mugimendua hazten den heinean lo jarraituko du, eta atzera eginez gero azalerratu egingo da. Inor ez da jaiogura duen tokian. Arbitrariora da, guztiz. Naturaren jolasa. Baina, guztiok izan behar ditugu esku-bide eta bizi baldintza berdinak.

**Tresna eraginkorra da desobedientzia zibila?**

Hala uste dugu horretan gabil-tzanok. Legedi injustu bat desobeditu gura duen tresna bakesua da, eta desobedientzia hori publiko egiteagaz batera ekarri dezakeen isuna onartzen dugu. Sasoi ilunak biziko ditu Euro-pak, gizarte lez konpontzeko gai ez bagara.

nature\_otsailak\_10 11 12

**50** ERAKUSLE

**17** HITZALDI

**6** EKINTZA

**1** FILM

ber  
de  
a  
go

**Izan.**  
Sentitu.

**Euskal**  
Ingurugiro  
Iraunkortasun **Azoka**

 **Landako**  
**Gunea**  
Durango **2017**



[www.berdeago.com](http://www.berdeago.com)





www.plazan



## Inauteriak

- 1 Zenbat lore daude?  
 2  3  4  5  6
- 2 Jende guztiaren artean, bi biki pare daude. Ze mozorro dute jantzita?
- 3 Aurkitu elementu hauek:
- 4 Aurkitu beste hauek ere: Elur-panpina, hontza, bandera pirata, Kapelu mexikarra
- 5 Irudiko cowboy-aren eta honen artean 8 ezberdintasun daude. Ikusten al dituzu?

## JOLASAREN TXOKOA

Familian jolasteko beste modu bat!

/ OTSAILAK 22 / 17:00-18:30 /

### Mozorro tailerra

PLATERUENA KAFE ANTZOKIAN

## IZEN EMATEA


otsailaren 14tik 20ra

berbaroren bulegoan

gazteak@berbaro.eus // 946 202 540

www.berbaro.eus






Sartu [www.plazanbazan.eus](http://www.plazanbazan.eus) web atarian eta denbora-pasa hauen erantzunekin batera beste hainbat jolas aurkituko dituzu.

## Bakoitzari berea

Zuhaitz-enbor hauek ez dute itzal ona ematen. Zein da enbor bakoitzari dagokion itzal aproposa ?



bazan.eus

## ELUR-KRISTALAK

Elurra egin dezan, hotza eta hezetasuna behar dira. Elur malutak izotz puska txikiz osatuta baitaude. Izotz puska txiki edo kristaltxo horiek oso bitxiak dira, oso forma ederrak hartzen dituzte eta ez omen daude bi berdin... Tira! Hemen bail! Hemen izotz-kristal bat errepikatuta dago. Zein?



## Labirintoa

Lagundu igelari urmaelera heltzen. Zomorroak dituzten laukietatik pasatuz, gora, behera, ezker edo eskuinera jo, baina ez diagonalean.



Egilea: Garbine Ubeda (Aiarri)



# GREMIOEN GIDA



## ITURGINTZA

**Mallabiena** 

M.Z.O. ITURGINTZA - GASA  
BEROGAILUA - ERAIKUNTZA, S.L.

Mallabiena industrigunea, 6  
48215 IURRETA · Tel.: 946 818 862  
mallabiena@mallabiena.com

  
**Ubide**  
iturgintza

Iturgintza, gasa eta berokuntza

946 030 506 / 625 702 208  
ubide@euskalnet.net  
48200 DURANGO  
188 PK.

  
**UNAI  
GARAY**  
ITURGINTZA  
BEROGINTZA  
GASA

Kanpatorrosteta 7B, 3.A · 48200 Durango  
659 673 790 · unaigaray@yahoo.es



## LEIHOAK

**Leihoak** 

ALUMINIOA · PVC-A · MISTOA

Casimiro Astola kalea, 12 ABADIÑO  
info@ventanas-durango  
Tel.: 652 736 339  
www.ventanas-durango.com



## ARKITEKTURA

**ARKI  
TEK  
SAN**

OBREN ZUZENDARITZA  
PROIEKTUAK / BIRGAITZEAK  
ERREFORMA ETA GARAPENERAKO  
NEGOZIO LOKALEN PROIEKTUAK  
ERAIKINEN IKUSKAPEN TEKNIKOAK  
NEURKETAK, PLANOAK  
ETA AURREKONTUAK EGITEA  
ERAGINKORTASUN  
ENERGETIKOKO ZIURTAGIRIAK

622 745 419  
NIZETO URKIZU 12. ELORRIO  
INFO@ARKITEKSAN.COM  
WWW.ARKITEKSAN.COM

EIT  
ITE

ERAIKUNTZEN  
IKUSKAPITZA TEKNIKOA  
AZTERKETA  
259€tik AURRERA!



## GARBIKETA

**AZKARGI  
GARBIKETAK**

Auzo elkarte, garaje  
eta obra osteko garbiketak

Goietta, 46 - 2 esk. ELORRIO  
Tel.: 615 791 215



## DEKORAZIOA

**JAIObarnizatuak**

Markoen, ateen, zokaloen,  
armairu aurrekaldeen eta  
era askotariko altzairuen lakadura.

Pintura eta pintura opaingarria.

Era guztietako zaharberritzeak egiten ditugu.

Eitua Industrialdea, 45 Garaia A · BERRIZ  
Tel./Faxa: 946 824 143 · Mug.: 658 758 421  
info@jaiobarnizatuak.com  
www.jaiobarnizatuak.com



## ZURGINTZA

**leike** aroztegia &  
diseinua  
NEURRIRA EGINIKO PROIEKTUAK



www.leikearoztegia.com  
Antso Estegiz, 3 Durango  
Tlf.: 94 681 72 29

**ATERPE ARBOTZAK**

EGUR ERAIKUNTZAK  
TEILATU ETA BARRUKO LANAK



Asier Abendibar 635 74 84 65  
Ander Maiztegi 655 73 75 51  
www.carpinteriaaterpe.com

# Zabalaren eta Ortellsen obrara gerturatzeko proposamena

Martxoaren 5era arte egongo dira bi erakusketak Durangoko Museoa

## > PINTURA Itsaso Esteban

Bi artista euskaldunen lanak hartuko ditu datozen asteetan Durangoko Arte eta Historia Museoa. Atzo inauguratu zuten Durangon bizi den Esperanza Zabalaren (Eibar, 1974) *Así las traen en Bizkaia* bilduma, eta bihar, 12:30ean zabalduko dute Ainhoa Ortells algortarraren *Pintura & Pintura*. Martxoaren 5era arte egongo dira erakusketa biak Durangoko Museoa ikusgai.

Artearen historiako erretratu ezagunen berrirakurketa egiten du Ainhoa Ortellsek Museoko areto txikian dagoen erakusketan. “Bi pintura motagaz nabil lanean”, azaldu du artista algortarrak. “Batetik, pintura zibilizatu, eboluzionatu, aztertu eta ikasitakoagaz; eta, bestetik, prehistoriko, instintibo, inprobisatu, fresko eta basatienagaz”.

Bestalde, Esperanza Zabalak Museoko areto nagusian jarri ditu ikusgai Durangoko bere tailerrean landutako koadro, instalazio eta eskulturak.

Espressionistak dira Zabalak erakusketan ipini dituen koadroak. “Umek eta zoroek

bezala margotzen du espressionistak, barrukoa ateratzeko beharrianak bultzatuta; ez du publikoarengan pentsatzen, ezta ikuslearen gustuan edota onarpenean ere”. Barnekoari ateratzen utzita margotzen duela azaldu du Zabalak. Margotzea “botaka egitea edo zainak moztea bezalakoa da”, dio artistak grafikoki, “barru-barruan sentitzen duzu”.

Arte Ederrak ikasi zuen Esperanza Zabalak, Salamancan, eta Frantzia garatu zuen margokera espressionista. “Ez nekien frantsesa eta komunikatzeko zailtasunak neuzkan: introspekzio handiko urtea izan zen, eta buru-belarri margotzen jardun nuen”, kontatu du.

## Artistaren enpatia

Beharbada lehenengo begirada batean identifikagaitzak izan daitezkeen forma figuratiboek osatzen dituzte Zabalaren koadroak. Hiri paisaiak, baserri inguruak, eta umea galdu duen ama baten mina irudikatzen ditu, esaterako, bere koadroetan. “Handiustekoa eman dezaket beharbada, baina uste dut artistak gainontzeko jende guztia

ordezkatzeko duela, eta bere helburua bestearen azalean jarzea dela, ondoren obra ikusten duenak beste horrenbeste egin dezan”, dio. Enpatia, bestearen larruan ipintzeko gaitasuna, da Zabalaren ustez artistaren ezaugarriarik inportanteena.

Formatu handiko koadroak ezezik, instalazioak ere ipini ditu Esperanza Zabalak Durangon ikusgai. Poliuretanoagaz egindako itxura organikodun figura hiperrealistek osatzen dute instalazio horietako bat. Adierazpide horren bidez, emakumeek pairatzen dituzten askotariko presioez dihardu, besteak beste, Zabalak: modari eta desioari buruzko bere gogoetak azaltzen ditu instalazioen bitartez. Ildo horretatik, emakumea eta kirola gaitzat hartuta egin dituen hainbat bozeto ere ipini ditu Durangon ikusgai.

Donostian, Milanen eta Salamancan burutu zituen Zabalak ikasketak, eta duela hamar bat urtetik Durangon dauka tailerra. Orain urte batzuk Durangoko Beitu arte galerian erakutsi zuen bere lana, eta oso eskertuta dago aukera hura eskaini ziotelako.



Museoko areto nagusian daude Esperanza Zabalaren lanak.



Erretratu ezagunen berrirakurketa egiten du Ortellsek Durangoko erakusketan.

## > ANTZERKIA Aimar Esteban

Elorrioko gaztetxearen 29. urteurrenaren harira, *La Noche Boluda* saioa egingo dute eguaztenean. Lehen aldia izango da ekimen hau Durangotik irteten dena. “Durangaldean antzerki zirkuitu txiki bat prestatzea da gure ideia. Horrela, bertaratzen diren artistek beraien ikuskizuna behin baino gehiagotan eta zenbait tokitan egin ahal izango dute”, azaldu du Cecilia Paganinik, ekimenaren antolatzaileak.

*La Noche Boluda* hilabeteak daramatza Sapuetxe gaztetxean antzezle txiki eta alternatiboek lekua egiten. Orain, Elorrioko gaztetxean egingo dute ikuskizuna. Ahal izanez gero, Durangoko saioetako antzezlanak egitea gura dute Elorrioren edo gehitzen diren beste herri batzuetan. “Elorrioko jendeagaz hizketan gabiltza oraindik. Hilabete honetako proba bat izango da. Pozik badaude eta lan egiteko prest dagoen taldea ateratzen bada, indarrak

# ‘La Noche Boluda’ Elorrioko gaztetxera zabalduko dute

Durangaldean antzerki zirkuitu txiki bat prestatzeko ideia daukate



Martxoko saioan Los hermanos Bolingas ‘Puestos en libertad’ antzeztuko dute.

batuko ditugu errepikatze”, aitortu du Paganinik. “Umerezko antzerki txikiaren formatu bera egin gura dute, baina ize-na aldatuko diote. Elkarlanean

jarraitu gura dugu, ekimena zabaltzeko”, azaldu du Paganinik. Horrelako ikuskizunak aurkitzea zaila izaten da gure inguruan. “Formatu alterna-

tibo eta txikiek ez dute instituzioen babesik jasotzen, eta horrelako espazioetatik sustatu behar ditugu”, salatu du *clown* argentinarrak.

## Hilabete honetako saioa

Eguenean, hilabetero egiten den saioa egongo da ikusgai Sapuetxen. Oraingoan bi antzezlanegaz datoz *La Noche Boluda* lagunak. *Cía la que tú me haces* konpainiaren eskutik, Iñaki Orgamenek, *Org.amen*, absurdua eta objektuekin egindako zirku malabarismoa nahasten dituen ikuskizuna eszenaratuko du. Ondoren, Paki Caballerok *Un mal día* antzezlan laburra aurkeztuko du. Caballeroren ikuskizuna hamabost minutuko *clown* saioa izango da. Antzezlanak 21:00etatik aurrera izango dira, baina atek orduete lehenago irekiko dituzte. Publikoak pintxoak eta edariak izango ditu eskuragarri, gaztetxeo barran. Sarrerak 4 eurotan daude.

Hurrengo hilabeteetan ere jarraituko dute *La Noche Boluda* ikuskizunek. Martxoan Los hermanos Bolingas, eta apirilean Badut taldea izango dira ikusgai. Ekainean kabaretagaz amaituko dute kurtsoa.

**> ARTEA** Aimar Esteban  
Otsailaren 12ra arte, Bruno Efimero artista durangarraren pinturak, marrazkiak eta fanzi-  
neak daude ikusgai Ezkurdiko Erakusgelan. Luis Ibañez artistagaz batera jarri du erakus-  
keta. Ibañezek bere pinturak, eskulturak eta maketak ere jarri ditu. Jaiotza artistikoak egiten  
ditu artistak, eta Andra Mari eta Santa Anaren maketak jarri ditu erakusketa honetan. “Bi  
estilo eta bi belaunaldi ezberdinen kontrastea ikus daiteke. Mundua ezberdin ikusten duten  
bi artisten lana dago”, azaldu du Bruno Efimero.

Zapatutik dago irekita erakusketa, Ezkurdiko erakusgelan. Aste bitartean, 18:00etatik 20:00etara, eta asteburuan, 12:00etatik 14:00etara eta 18:00etatik 20:00etara dago bertara sartzeko aukera. “Ezkurdiko erakusgela gustuko dut, espazioagaz joka dezakezu eta nire lana bistan jartzeko leku aproposa da”, dio artista durangarrak.

#### Efimeroren lehen aldia

Bruno Efimerok Durangon bere lana erakusten duen lehen aldia da. “Betidanik izan dut nire herrian erakusketa bat jartzeko nahia, eta ilusioz beterik nago”, adierazi du. Aurretik, Bilboko

## Bruno Efimeroren erakusketa Ezkurdiko erakusgelan ikusgai

Artista durangarrak bere lana herrian erakusten duen lehen aldia da



Bruno Efimerok Luis Ibañezegaz batera jarri du erakusketa Ezkurdiko aretoan.

hainbat dendatan jarrita zuen bere lana, baina erakusketa gela batean ikusgai dagoen lehen aldia da. Durangoko margolariak abstraktutzat eta espresionistatzat definitzen du bere lana. “Datorren jendeak harrituta eta kuriositatez begiratzen die erakusketan dauden koadroei”, azaldu du artistak.

Ezkurdiko erakusgelan dago ikusgai Bruno Efimero eta Luis Ibañezen erakusketa, domekara arte

Bere lana Ezkurdiko aretoan erakutsi ahal izatea Luis

Ibañezi eskertzen dio. “Berari esker jarri dut nire lana herriko jendearen bistan”, aitortu du. Artistaren hurrengo geltokia Bilboko jatetxe bat izango da, hantxe ere eman baitiote aukera hori. “Pixkanaka, jendeak nire lana zenbait lekutan ikustea, eta horrela lan hori ezagutzera ematea espero dut”, adierazi du.

#### GEURE DURANGALDEA

**FERNAN RUIZ LARRINGAN**

Berbaroko kidea



#### Zaborrak bizigai

Banoa etxe barruko epeletik, nagi, poltsak eskuetan, kalera. Ilun dago, argi horixkak gaua tindatzen du euri langarra lagun. Apenas igartzen dira joan-etorrian dabilzaten aurpegierak... Bizikleta zaharra dago alboko zuhaitzaren kontra, atzeko parrillan plastikozko kaxa bat lotuta duela. Esku batean linterna, bestearekin burdinazko tapa berdea zabaldu du. Kiratsak atzitu eta, lepotik oratuta, ontzi barrura makurrarazi du guztiz. Hankak dingilizka, makilatxo batekin baliatu da kirasdun poltsak eta bestelakoak bereizi eta miatzeko. Kamioiaren motorra eta haren sabel-orroak entzun ditugu, ez urrin; baina ez da aztoratu.

Bisera batekin babesten du kaskoa, eta hura daroanetik, ahaztu egin zaio zerurantz begiratzen, han goian ezer gutxi topa bailezake, aze gutxiago gauaren ilunean... Egunero ibiltzen da hara eta hona makilatxo astintzen, eroso bizi garenon hondakinak bizigarri bilakatzen. Parrillara lotuta daroan kaxan sartu eta hurrengo zabor gunera joaten da, tapa berdea ireki, burua sartu, makilatxo astindu... eta hurrengora. Denon etxetan sartzeko modua aurkitu du; inoiz, gure sekretu gordeak topatu baititu usteletan. Oparo bizi garenon lohietan apur bat arakatu besterik ez, eta hatsak nor garen agerrazten dio.

Ez da errefuxiatu siriarra, ez kurdua, ezta palestinarra ere... Gure ongizateak errefusetara bidali duen auzokideetako bat baino, zabor-ontzietako kiratsak itota bizitzera kondenatua, hori du patua. Dohain aparta du, ordea, gure sastarrak bizigai bihurtzeko gaitasun ikargarria.

## Kurutziaga akademiako ikasleen margolanak

Olajauregi hotelean zabaldu dute erakusketa



Akademiako 5 eta 24 urte arteko ikasleek egindako 80 lan daude erakusketan.

#### > ERAKUSKETA I. E.

Durangoko Kurutziaga akademian ikasten duten margolarien erakusketa dago joan zen zapatutik Olajauregi hotelean, eta otsailaren 19ra arte izango da bisitatzeko aukera. Aurreko hainbat urtetan akademia ondoko Jai Berri tabernan ipini izan dituzte ikasleen lanak erakusketan, Gabon inguruan, baina aurten lehenengoz hartu dute hotela erakusketaren kokagune gisa.

Akademiako 5 eta 24 urte arteko ikasleek egindako 80 koadro dira erakusketan ipini dituztenak. Ikasturte honetan egindako lanak dira gehienak, askotariko gai eta teknikak landuz osaturikoak.

Kurutziaga akademiako arduradunek ia bi hamarkada daramatzate margotzea gustuko duten ikasleei askotariko teknikak irakasten.

Ikasleei margogintzako teknikak irakasten ia bi hamarkada daramatzate Kurutziaga akademian

Otsailaren 19ra arte, astelehenetik barikura, 18:00etatik 20:00etara; eta zapatu-domeketan 12:00etatik 14:00etara eta 18:00etatik 20:00etara egongo da erakusketa ikusgai, Durangoko Olajauregi jatetxean.

**Al otro lado del Atlántico**  
Yakambú + Dairi Brown  
Otsailaren 11n, 20:00etan  
Sanagustinalde, 12 - Tel.: 946 030 021  
sanagustin@durango-udala.net  
San Agustín KULTUR GUINEA

**PLATERUENA** Durangoko Kafe Antzokia www.plateruena.eus  
Landako etorbidea, 4A | 48200 Durango | Tel.: 946 030 300

**JAT ETX EA**  
EGUNEKO MENUA  
IGANDEETAN MENU BEREZIAK

**GLITIK ZURA**  
GALANA, URKINA ETA ETORRIZONA  
OTSAILAK 12  
18:30ean  
GUTIK ZURA DOKUMENTALA  
IKUS-ENTZUNEZKOA

**PUB QUIZ**  
LEHIAKETA  
OTSAILAK 17  
21:00ean

**IDJ ZIGOR DZ**  
ESNE BELTZA, FERMIN MUGURUZA  
OTSAILAK 18  
2:00etan



<b>AGENDA</b>
<b>&gt; FUTBOLA</b>
<b>EUSKAL LIGA (emakumeak)</b>
<b>Elorrio - Bizkerre</b> · Zapatuan, 18:00etan, Eleizalden.
<b>OHOREZKO MAILA (gizonak)</b>
<b>Iurretako - Derio</b> · Domekan, 17:00etan, Larrakozelaiain.
<b>LEHEN ERREGIONALA (gizonak)</b>
<b>Amorebieta - Berango</b> · Domekan, 17:45ean, Txolonen.
<b>HIRUGARREN ERREGIONALA (gizonak)</b>
<b>Durangoko Bikainak - Lemoa Harrobi</b> · Zapatuan, 18:00etan, Tabiran.
<b>&gt; ARETO-FUTBOLA</b>
<b>HIRUGARREN MAILA (gizonak)</b>
<b>Presion Break - Soloarte</b> · Domekan, 12:00etan, Berrizburu kiroldegian.
<b>EUSKAL LIGA (gizonak)</b>
<b>Elorriko Buskantza B - Miranda</b> · Domekan, 12:00etan, Elorriko kiroldegian.
<b>Mallabia Seguros Altaldi - Aretxabaleta</b> · Domekan, 17:00etan, Zaldibarko kiroldegian
<b>LEHENENGO ERREGIONALA (gizonak)</b>
<b>Elorriko Txiki - Mallabia B</b> · Zapatuan, 16:00etan, Elorriko kiroldegian.
<b>BIGARREN ERREGIONALA (gizonak)</b>
<b>Racing Tolosto - GDKO Lehoiak</b> · Zapatuan, 17:30ean, Landako kiroldegian.
<b>ERREGIONAL MAILAKO EMAKUMEEN LIGA</b>
<b>Elorriko Buskantza - Zorrotzako</b> · Zapatuan, 18:00etan, Elorriko kiroldegian.
<b>&gt; SASKIBALOA</b>
<b>LEHEN ERREGIONAL BEREZIA (gizonak)</b>
<b>Zornotza - Askartzak</b> · Domekan, 12:00etan, Ixerbekoan.
<b>LEHEN ERREGIONALA (gizonak)</b>
<b>Julza-Zaldia - Sopela</b> · Zapatuan, 17:00etan, Zaldibarko kiroldegian.
<b>Zornotza - Salleko</b> · Domekan, 18:00etan, Ixerbekoan.
<b>LEHEN ERREGIONALA (emakumeak)</b>
<b>Zornotza - Erandio</b> Domekan, 16:00etan, Ixerbekoan.
<b>BIGARREN ERREGIONALA (emakumeak)</b>
<b>Tabirako Baqué - Berrio-Otxoa</b> · Zapatuan, 19:00etan, Tabirako kiroldegian.

# Durangaldean arrotza den kirolean gora eginez

Senior mailan bigarren mailan jokatzeko dabilta Sapuherri taldeko neskek



Sapuherri boleibol taldeko neskek.

**> BOLEIBOLA** M.Zuazubiskar Sarea ipini, eskumuturrak berotu eta baloia astitzen hasi dira aurten senior mailako bigarren mailan jokatzeko dabilta Sapuherri taldeko neskek. Aurten arte eskola kirolean aritu diren arren, denboraldi honetan mailaz igo eta Euskal Herri osoan boleibolean jokatzeko dabilta 16-18 urte bitarteko durangarrak. Maila batetik bestera saltoa

igartzen duten arren, ligako taldeak nahiko orekatuta daudela adierazi dute Garazi Abalde eta Uri Lasa boleibol taldeko berberanoek. "Sailkapen nagusian postu ona ez dugun arren, partidu onak jokatzeko ditugu, eta pixkanaka-pixkanaka hobetzen goazela ikusten dugu", aitortu dute Abaldek eta Lasak. Gainera, azken partiduetan epaileek ere zoriondu dituztela

beraien joko onarengatik adierazi dute. "Dugun dena eman eta partiduetan disfrutatzea da gure helburua. Entrenatzaileek beti erakutsi diguten bezala, hain zuzen", adierazi du Lasak.

## Maila berrian, arazoak

Hala ere, bigarren mailara igota, guztia ez dela arrosa kolorekoa adierazi dute taldeko berberanoek. "Taldeen momen-

tu zailak bizi ditugu, ez dugu inongo laguntzarik, ez laguntza ekonomikorik ezta pertsonalirik ere", aitortu dute bi kideek.

Partiduetarako bidaiak beraien ordaindu behar dituztela, eta, hori gutxi balitz, etxean jokatzeko partiduetan zaleen berotasunik ez dutela izaten aitortu dute jokalariek. Abaldek hitzetan, "gurasoak eta senitartekoak izaten dira partiduetara etortzen diren bakarrak, eta horrela ezinezkoa da herrian jendeak eza-gutzea".

## Kirol baztertua

Sapuherri Durangaldean dagoen goi mailako boleibol talde bakarra da. Ez dago boleiboleko goi mailako beste talderik, ez nesketan, ez mutiletan.

"Oro har, boleibola kirol baztertua da, eta Durangaldean oso argi ikus daiteke hori. Eskola kirolean dauden taldeez gain, geurea da goi mailan dagoen talde bakarra, eta gezurra dirudien arren ez gaitu ia inork eza-gutzen", aitortu du Abaldek.

Hala ere, zailtasunak zailtasun, aurtengo denboraldiagaz aurrera jarraituko dutela adierazi dute taldeko berberanoek, eta mailaz igotzea lortu duten urte honetan, orain arte bezala, beraien onena ematen jarraituko dutela, baieztatu dute.

Horrez gain, herritarrei gonbit egiten diete Durangoko kiroldegira joan eta beraien batera boleibolagaz gozatzeko.

## "Teknika ondo hartu arte kirol zaila da boleibola"

Erdoiza eta Preguntegi jokalariek mailaz igo den Sapuherri boleibol taldeko kapitainak dira

Sapuherri boleibol taldeko kapitainak dira Arrate Erdoiza eta Maria Preguntegi. Bi kapitainek duela zortzi urtetik jokatzeko dute boleibolean.

**Nola hasi zineten boleibolean?**

**Arrate Erdoiza:** Eskola kirol bat aukeratu behar genuen, eta horrela hasi ginen biok jokatzeko.

**Nola gogoratzen dituzue hasierako urte haiek?**

**Maria Preguntegi:** Hasieran nahikotxo hasi ginen boleibolean, baina, gero, jendea ixten joan zen.

**A.E.:** Boleibola, hasieran, kirol zaila da. Teknika ondo hartu

arte, askoren iritzian, ez da kirol polita izaten.

**M.P.:** Gaztetxo askorentzat eragozpen handia bilakatzen da kalean boleiboleko baloi edo sare bat ez aurkitzea. Orduan, kalean errazago jokatu daitezkeen kirolak jotzen dute.

**Zuek, berriz, kirol honegatik egin zenuten apustu.**

**A.E.:** Bai, hori da. Gaztetan, boleibolean jokatzeko gain, triatlouetan ere aritzen nintzen. Baina, taldean genuen giro bikaina ikusita, boleibolean zentratzea erabaki nuen.

**Hainbat aldiz aipatu duzue taldean giro ona duzuela.**



**Zuen taldearen indargunetako bat dela esan daiteke?**

**M.P.:** Dudarik gabe, taldeki-deok harreman bikaina daukagu, eta hori ezinbestekoa da aurrera egiteko.

**A.E.:** Harreman on horrez gain, kantxa barruan ere oso ondo ezagutzen dugu elkar, eta bakoitzak zer eta noiz egin behar duen ere oso argi izaten dugu.

**Nola ikusten duzue taldea maila berri honetan?**

**M.P.:** Egia esan, taldea nahiko

ondo ikusten dut. Emaitzek askorik lagundu ez diguten arren partidu txukunak egiten gabil-tza. Gainera, hasieratik argi izan dugu denok mailaz igotzea ez dela erraza.

**A.E.:** Momentu honetan taldeak bizi duen egoera nahiko zaila den arren, aurrera egiten gabil-tza, eta hori azpimarratzekoa da. Hala ere, momentu honetan dakigun bakarra da liga bukatu arte jarraituko dugula. Datorren urtean ikusi beharko dugu jarraitu ala ez

# Kros laburreko Euskadiko txapelketa hartuko du Berrizek domekan, lehenengoz

Durangaldeko hainbat hautagai daude txapelak janzteko, gizonetan zein emakumeetan



Gizonetan Ariznabarreta eta Marañon dira txapela janzteko faboritoetako bi.

## > KROSA J.D.

Iaz Bizkaiko txapelketa jokatu zuten Berrizburuko landetan. Aurtan, salto berri bat emanda, Euskadiko kroslaririk onenak

batuko ditu domekan kros laburreko eta beterranoen txapelketak. Antolatzaileek 300 bat parte-hartzaile espero dituzte Berrizburuko zirkuituan.

Durangaldeak bosgarrenez hartuko du txapelketa hori. Aurreko laurak Abadiñon izan dira, iazko aldia tartean. Juan Jose Anderez Euskadiko Atletismo Federazioko presidentek “faborito argi bako lasterketa estuak” itxaroten ditu, probak aurkezteko Berrizko udal-txetan eskaintako prentsaurrekoan azaldu zenez.

Gizonen proba 11:30ean hasiko da, eta emakumeena orduerdi geroago. Dabid Garcia eta Ainhoa Sanz iazko irabazleak ez dira etorriko, “arazo fisikoen-gatik”. Gizonetan Oier Ariznabarreta eta Txomin Marañon durangarrak faboritoen artean daude. Emakumeetan marokoar jatorriko krosleriek gainera, Iraia Garcia zornotzarra, Gurutze Frades iurretarra eta Irene Loizate durangarra kontuan hartzeko izenak direla uste du Anderezek. Lasterketa bi horien aurretik, 10:30etik aurrera, beterranoenak lehiatuko dituzte.

## Kros luzeko lorpenak

Joan zen asteburuan kros luzeko Euskadiko txapelketa jokatu zuten Sopuertan, eta eskualdeko hainbat talde eta krosleri nabar-

mentu ziren. Besteak beste, Durango Kirol Taldeak taldekako garaikurra berriro zuen, eta Durangaldea Running-eko Txomin Marañon 23 urtez azpiko onena izan zen. Iazko aldian azpitxapeldun izan zen Marañon.

## Ariznabarretaren eskaera

Oier Ariznabarreta durangarrak gutun bat argitaratu du sare sozialetan Sopuertako probaren ostean. Eguraldi lorrina eginagatik, horrelako txapelketa batek merezi baino jende gutxiago batu zela uste du. Antolaketako gabezia batzuk ere zerrendatu ditu eta, oro har, krosa kirol “anakronikoa” bihurtu dela uste du. “Bultzada bat” behar duen kirola da eta federazioari “neurriak hartzeko” eskatu dio.

Anderez federazioko presidentearen ustez, lan “gaitza” da egoerari buelta ematea. “Euskadin ez ezik Espainian eta Europan ere pisua galdu du krosak azken urteetan”, dio. Txapelketako probak antolatuko dituzten hautagaiak bilatzea gero eta gaitzagoa dela azaldu du. “Lehen hainbat eskaeren artean aukatzen genuen. Orain bila ibili behar izaten dugu”.

## ADITUAREN TXOKOA

**IÑAKI IZA**

Pilotari ohia



## Sailkapena oso estu

Hamar jardunaldi jokatu ondoren, inoiz baino estuago dago lehen mailako binakako txapelketa. Horren ondorioz, emozio faltarik ez da izango ligaxka bukatzeko falta diren lau jardunaldietan.

Askok aurreikusten genuen bezala, Irribarria eta Rezusta bikote oso indartsua osatzen ari dira eta bi partiduko soilik galdu dute, biak Bengoetxea eta Larunberen kontra gainera. Kasualitatea? Ez dut uste. Txapelketak joko puntu onean harrapatu du Oinatz, eta Irribarriarentzat aurkaririk deserosoena dela argi erakutsi du. Beste bikoteek aukerak dituzte final aurrekoetan sartzeko, nahiz eta Urrutikoetxea eta Imazen kasuan oso urriak diren. Aipatzekoa da Mikelen egoera, joko oso ondo dagoela erakutsi baitu, baina ez du laguntza nahikorik jaso bere atzelariengandik.

Ikusi beharko da nola ekiten dieten azken txanpari gainerako bikoteek. Azkeneko jardunaldietan ikusi denez, Altunari eta Barriolari luze egiten ari zaie ligaxka eta Aimarrek, ordea, baliteke gorantz egitea Untoriarekin batera.

Artolaren lesioa dela eta, Victor ezin hobeto ari da aukera aprobeztatzen eta Albisu zoragarri batekin bigarren postuan finkatu dira aukera handiekin.

Gozamena eta emozioa izango ditugu txapelketarekin. Eta txapelketaz gain ere badugu zertaz gozatu, larunbatean Andoni Aretxabaleta, sorbaldako ebakuntzaren eta lau hilabeteko errehabilitazio gogorren ondoren, berriz kantxetara bueltatuko baita Markinan.

## Gimnasta gazteak Landakon lehiatuko dira

> **GIMNASIA ERRITMIKOA** J. D. Zapatu honetan benjamin eta kadete mailako gimnasten Bizkaiko txapelketako lehen fasea lehiatuko dute Durangoko Landako kiroldegian. Ehunka gimnastaren erakustaldiak ikusi ahalko dira 10:00etatik 20:00 bitartean. Durangoko Uztai gimnasia erritmiko taldeko gazteek ere parte hartuko dute.

## Mendizaleei erronka proposatu die Zaldaik

> **MENDIA** J. D. Mendizaleei erronka bat proposatu die Iurretako Zaldaik menditaldeak. Onartzen duenak martxoaren 1etik azaroaren 30era arte dauden bederatzi hilabetetako mendiko kopuru jakin bat igo beharko du, gutxienez. Erronka egitea lortzen duenak oroigarri bat jasoko du abenduan egingo duten lehenengo mendiko astearen barruan.

Guztira, Euskal Herriko edo Pirinioetako 30 mendi daude aukeran. 18 urtetik gorakoek gutxienez bost herrialdeetako hamar tontor igo beharko dituzte. 18 urtetik beherakoek, berriz, gutxienez hiru herrialdeetako bost mendi. Erronka honetan Zaldaik bazkide zein bazkide ez diren adin guztietako mendizaleek parte hartu dezakete [zaldai@hotmail.com](mailto:zaldai@hotmail.com) helbidera

idatzita. Erronkarako hautatu dituzten mendien zerrenda [www.zaldaimendialdea.org](http://www.zaldaimendialdea.org) webgunean aurkitu daitezke.

“Lehiaketaz haratago, mendizaleetasuna bultzatzea eta bide batez Euskal Herria bere osotasunean ezagutara ematea” dira erronkaren helburuak, Zaldaik Menditaldeko Erlantz Zaldunbidek azaldu duenez. “Urrun joan beharrik gabe baditugu toki politak”, gehitu du. Horregaz batera, “gurasoak euren seme-alabekin eta familia giroan mendira joateko ohitura” sustatu gura dute.

**Seguros Bilbao**

**RUEDA BILBAO ASEGURUAK**  
**Jabier Rueda**

Landako etorbidea, 1 DURANGO  
Tel.: 946 202 710 - Faxe: 946 816 577  
[jrueda@segurosbilbao.com](mailto:jrueda@segurosbilbao.com)

**GAER** DESINFEKZIOAK

**Mota guztietako intsektuak eta arratoiak hiltzen ditugu:**

LABEZOMORROAK, INURRIAK, JANTZI-SITSAK, ARRATOIAK, ARKAKUSOAK, ERLEAK...

Iturriza, 42 - 2 ezk. - Tel./Faxe: 946 225 774 / 658 757 279 - BERRIZ

# Atera etekina Anbotoren Lagun txartelari!

**Gozatu abantaila eta deskontu hauetaz:**

%



## A-METZ DEKORAZIOA

- > -%20 proiektuan, udaleko legalizazioetan eta irekiera proiektuan.
- > -%20 ideien proiektuan.



## BETIXU JATETXEA

- > - %10 asteburuko otorduetan eta kartan, ostiral eta larunbat gauetan.



## COLOR PLUS

- > -%10 tinta- eta toner- kartutxo bateragarrietan.
- > -%5 tinta- eta toner- kartutxo originaletan.



## EPOCA SUKALDEAK

- > -%10 sukalde nahiz etxeko altzarietan.



## EUREKA! ZIENTZIA MUSEOA

- > -%10 sarreran deskontua museoko eta planetarioko sarrera orokorrean, bai eta bietarako balio duen sarrera konbinatuan ere.



## GIMNASIO ZIRKIN

- > Bazkide berriei matrikulazioa doan.
- > Bazkide direnei 10 sesioko solarium bonoa doan.



## HITZ LIBURU-DENDA

- > -%10 euskarazko liburuetan.



## HONTZAEXTREM ABENTURA PARKEA

- > -%15 sarreran.



## ITAI ARROPA ETA OSAGARRI DENDA

- > -%5 lehenengo erosketan.
- > -%10 erosten den bigarren arropan.



## IURRETA KOPISTEGIA

- > -% 10 eskola eta bulego materialean.
- > -%5 musika, opari eta liburuetan.



## KATXARRO JATETXEA

- > - %10 asteburuetako menuetan.



## KIROL ERROTA GIMNASIOA

- > Bazkide berriei matrikulazioa doan.



## LANDAKO OPTIKA

- > -%15 eguzkitako betaurrekoetan, audilogian, ikusmen urritasunean, eta armazoi eta lenteetan.



## MANCISIDOR 1866 BITXI-DENDA

- > -% 5 deskontua 100€-ra arteko erosketetan.
- > -%10 deskontua 100€-tik gorako erosketetan.



## NATURALKI BELARDENDA-EKODENDA

- > -% 5 Dippner oinetakoetan.
- > -% 10 Gabonetako produktueta: turroiak, polboroiak...



## OPEN KLUB

- > -%20ko deskontua matrikulan. Ez da bateragarria beste eskaintza batzuekin.



## PLATERUENA KAFE ANTZOKIA

- > Bosgarren gosaria doan.
- > Plateruenak antolatutako ekitaldietan leihatilan erositako bigarren sarrera doan.



## UNAMUNZAGA ETXEBARRIA HORTZ-KLINIKA

- > Azterketa eta bi erradiografiak doan.



## UNDARRI BIKE

- > -%10 ski eta snow materialen mantentze-lanetan: zolari argizaria eman eta ertzak zorrotzu.
- > -%10 bizikletako osagarrietan.



## URRIKE LIBURU-DENDA

- > -%5 liburuetan.
- > -% 10 papergintzan.



## UR URDAIBAI

- > -%25 Anbotoren Lagunarentzat eta horren lagun batentzat Urdaibaiko itsasadarraren jaitsieran, piraguan edo stand up paddle-ean.



**Anbotoren Lagunak**  
Lekuan lekuko lagunak

[www.anboto.org](http://www.anboto.org) · [lagunak@anboto.org](mailto:lagunak@anboto.org) · 946 816 558



Anboto  
Komunikabideak



@anboto



@anbotokomunikabideak

## > Inmobiliariak



### ETXEBITZAK ALOKAIUAN

**DURANGO.** Bat, bi eta hiru logelako etxeak alokairuan. Hilean 550€-tik hasita.

### ETXEBITZAK SALGAI

**DURANGO.** Tabirakalea. 3 logelako etxea, komuna, sukaldea, egongela, dena kanpora begira. Eta garaje itxia.

**DURANGO.** Errotarixuena Atiko zoragarria. 3 logela, bi komun, bi terraza zabal, sukaldea, egongela, dena kanpora begira, eta garaje itxia lau kotxe sartzeko. Ikusgarria.

**DURANGO.** Francisco Ibarra. 4 logelako etxebizitza, 2 komun, sukaldea, egongela, balkoiarekin eta despentsa.

**ATXONDO.** 3 logelako etxebizitza, komuna, sukaldea, egongela, dena kanpora begira, hiru balkoi. Horrez gain, garaje itxia.

**ELORRIO.** 4 logelako etxebizitza, egongela, sukaldea balkoiarekin, komuna, eta garajea itxia.

**DURANGO.** -Kalebarria, 3 logelako etxebizitza, sukaldea, egongela, eta komuna. 120.000€.

**DURANGO.** ARTEKALE. Azken etxebizitza, bikoak, trastelekuarekin. Prezioak 165.000€-tik hasita.

**LEKEITIO.** 3 logelako etxebizitza, komuna, sukaldea, egongela terrazarekin, garajea. Urbanizazio pribatu baten barruan, igerileku eta frontoiarekin.

**ABADIÑO.** Aita Letona. Etxebizitza ederra 2 logelarekin, komuna, sukaldea, egongela, garajea eta trastelekua.

**ABADIÑO.** Iturritxo. Logela bateko apartamentua, sukalde amerikarra-egongelarekin, komuna, esekitokia, ganbara, garaje bikoitza eta trastelekua.

**DURANGO.** ATIKO BERRIA ESTREINATZEKO. 2 logela, 2 komun, sukalde amerikarra, egongela, garaje itxia eta terraza ikaragarria.

**ATXONDO.** Etxebizitza 2 logelarekin, komuna, despentsa, sukaldea esekitokiarekin, eta egongela.

**ZALDIBAR.** Etxebizitza, 3 logela, komuna, sukaldea, egongela balkoiarekin, guztiz berriztatua. Horrez gain, trastelekua.

### LURSAILAK SALGAI

**ABADIÑO.** 1.000 m<sup>2</sup>-ko lursaila salgai, bifamiliarra eraikitzeke baimearekin. Zonalde egokia.

**BERRIZ.** 10.000 m<sup>2</sup>-ko lursaila. Zelai ederra sarbide oso onarekin.

**IURRETA.** 5 hektarea inguruko lursaila, Abeletxe bat egiteko aukera dago. Sarbide onarekin.

**ABADIÑO.** Bifamiliarra eraikitzeke lursaila, 1.000 m<sup>2</sup>. Informazio pertsonalizatua.

**AMOREBIETA. EUBA.** Txalet bifamiliari bat eraikitzeke lursaila, 3.000 m<sup>2</sup> inguruko azalerarekin.

**AMOREBIETA. LARREA.** 27.000 m<sup>2</sup>-ko lursail ederra, dena partzela bakarrean.

### BASERRIAK ETA TXALETAK SALGAI

**ABADIÑO. GAZTELUA.** Baserri ikusgarria, arku eder batekin sarreran, ekialdera begira, 20.000 m<sup>2</sup>-ko lursaila baserriaren ondoan.

**BERRIZ.** Txalata 1.200 m<sup>2</sup>-ko partzelan, Abeletxe kalean. Hegoaidera begira. 4 logela, 3 komun, sukaldea, egongela, eta garajea.

**ATXONDO.** Baserri ikusgarria Martza uzoan, 15.000 m<sup>2</sup>-ko lursaila baserriaren inguruan. Teilatu berria. Zonalde pribilegiatua.

**BERRIZ.** B<sup>o</sup> Murgoitio. Bifamiliari ederra salgai. 6 logela, 2 sukalde, 2 egongela, 6 komun, garaje bikoitza, 12.000 m<sup>2</sup>-ko lursaila. Kokapen ezin hobea, Anbotora begira.

**MENDATA.** Lamikiz auzunea. Baserri bifamiliarra berriztatzeke. Orientazio pribilegiatua, oso eguzkitsua. Prezio interesgarria.

**DURANGO.** Eraikin atxiki ederra, izkina, guztiz hornitua. Ia berria, estreinatzeke.

**BERRIZ.** Baserri ederra, Murgoitioko zonaldean. Egokia landa-turismorako, landetxea. Ikuspegi ezin hobek.



### ETXEBITZAK SALGAI

#### BARRENKALE



• Guztiz berriztatua eta herriaren erdian, 2 logela, egongela, sukaldea jarrita eta komuna. 3 balkoi. **190.000€.**

#### SAN FRANZISKO



• 73m<sup>2</sup>-ko etxebizitza, komuna, sukaldea jarrita eta balkoi. Horma-armairuak ere badaude. Ilogailua jartzen ari dira. **155.000€ / Garajea aukeran. 12.000€.**

#### MATIENA



• Egoera oso onean orokorrean. 70m<sup>2</sup>-ko etxebizitza, sukaldea, egongela, komuna eta 3 logelarekin. Bi balkoi-terrazza ditu. **143.000€ / negoziagarria.**

#### ABADIÑO



• 3 logela, egongela, sukaldea jarrita, despentsa, 2 komun eta bi balkoi handi. **145.000€.**

#### GOIENKALE



• Etxebizitza berehala bizitzera sartzeko moduan dago. Oso eguzkitsua eta argitsua. 3 logela, egongela, sukaldea jarrita, komuna eta ganbara. **130.000€.**

#### MATIENA



• 3 logela, egongela, sukaldea osorik, baingela dutxaontzi eta guzti, eta trastelekua. Gas naturala galdararaino. Egoera onean. **89.000€.**

www.inmoduranguesado.com



### ETXEBITZAK SALGAI

#### MIKELDI



• APARTAMENTUA. Erdi-berria. Erdialdean. Dena kanpora begira. Altua. Ganbarekin. **165.000€.**

#### MENDIZABAL



• ERDI-BERRIA. 2 logelarekin. Komuna. Egongela. Sukaldea. Ganbara eta garajea. **230.000€.**

#### DURANGO (AUKERA)



• 3 logela. Komuna. Egongela. Eguzkitsua. Berogailuarekin

#### IBAIZABAL



• APARTAMENTUA. Erdi-berria. Logela bat. Sukaldea-esekitokia. Ganbara. Garajea.

#### M. TORRE



• 113 m<sup>2</sup>. 3 logela. 2 komun. Sukaldea. Egongela terrazarekin. Trastelekua eta garajea. **220.000€.**

#### MAÑARIA



• ETXEBITZAK ETA ATIKOAK estreinatzeke. **125.000€-tik hasita.**

**LOKALAK ETA ETXEBITZAK ALOKAIUAN. KONTSULTATU.**  
www.inmoetxetxo.com

**ALOKAIUAN  
ETA SALGAI DITUZUN  
HIGIEZINEN BERRI  
EMAN NAHI  
AL DUZU?**



**Anbotok tarte hau  
eskaintzen dizu**

Informazio gehiagorako:  
Tel.: 946 217 902  
publi@anboto.org



# AGENDA

ANBOTOk agendan ezer iragarri gura baduzu, idatzi [agenda@anboto.org](mailto:agenda@anboto.org) helbidera edo deitu **946 232 523** telefonora, eguazten eguerdia baino lehen.



Otsailaren 10ean, 22:00etan,  
Elorriko Arriolan

## Yllanaren 'Chefs'

Yllana taldearen bisita jasoko du, gaur, Elorriko antzokiak. Gastronomiaren munduan inspiraturiko testurik bako antzeztanagaz datoz oraingoan Yllana taldeko artista madrildarrak. Ospe handiko chef bat ideiarik barik geratu da, eta sukaldari talde zoro bati eskatuko dio laguntza. Ikuskizun honetan ere, Yllanaren umorea izango da ikuskizunaren osagai nagusia.

## Musika

### :: DURANGO

OTSAILAREN 11n

**20:00etan**, Yakambú eta Dairi Brown, 'Al otro lado del Atlántico', San Agustinen.

### :: ELORRIO

OTSAILAREN 17an

**22:30ean**, Atom Rhumba, Arriolan.

### :: ZORNOTZA

OTSAILAREN 16an

**20:30ean**, Dead Combo, Zelaletan.

OTSAILAREN 17an

**20:00etan**, CRAP + 28 Escupitajos + Ultima neurona, Ziztada Gunean.

## Urteurrena

### :: ELORRIO (Gaztetxearen 29. urteurrena)

OTSAILAREN 11n

**10:30ean**, Graffiti tailerra, Erreka kalean.

**12:30ean**, artisten poteoa, Gaztetxean.

**14:00etan**, omenaldia, San Josen.

**14:30ean**, bazkaria, eta ondoren jokoak.

**18:00etan**, familia argazkia, Gaztetxean.

**19:30ean**, Mud Candies, Gaztetxean.

**22:00etan**, Bad Sound System + Garilak 26, Gaztetxean. Ondoren, DJ Elviscaino.

## Antzerkia

### :: BERRIZ

OTSAILAREN 10ean

**20:00etan**, 'Frida Kahlo, viva la vida', Kultur Etxean.

OTSAILAREN 17an

**18:00etan**, Kaput, Kultur Etxean.

### :: DURANGO

OTSAILAREN 16an

**21:00etan**, La noche boluda, Sapuetxe Gaztetxean.

### :: ELORRIO

OTSAILAREN 10ean

**22:00etan**, Chefs, Arriolan.

OTSAILAREN 12an

**17:00etan**, Euria, Arriolan.

OTSAILAREN 15ean

**21:00etan**, La Noche Boluda, Gaztetxean.

### :: ZORNOTZA

OTSAILAREN 11n

**18:00etan**, Titirikontu Kontari, Zornotza Aretoan.

## Erakusketa

### :: DURANGO

OTSAILAREN 12ra arte

Luis Ibañez Aramaio eta Bruno Ibañez Lozanoren lanak, Ezkurdiko aretoan.

MARTXOAREN 5era arte

Ainhoa Ortellsen 'Pintura & Pintura', Museoa.

Esperanza Zabalaen 'Así las traen en Bizkaia', Museoa.

## Azoka

### :: DURANGO

OTSAILAREN 10etik 13ra

**10:00etatik 20:00etara**, Berdeago, Landako Gunean.

## Dantza

### :: ELORRIO

OTSAILAREN 18an

**16:00etan eta 19:30ean**, Akadantz, Arriolan.

## Kontalaria

### :: IURRETA

OTSAILAREN 17an

**17:30ean (3-4 urte) eta 18:00etan (5 urtetik gora)**, Lur Usabiaga, Herri Bibliotekan.

## Zinema

### :: DURANGO

OTSAILAREN 12an

**18:30ean**, 'Gutik zura' dokumentala, Plateruenean.

## Berbaldia

### :: DURANGO

OTSAILAREN 14an

**18:00etan**, 'Kontzertu ekonomikoari buruzko gogoetak' San Agustinen.

## Txitxiburduntzia

### :: OTXANDIO

OTSAILAREN 11n

**19:00etan**, Txitxiburduntzia eta Peru Magdalenaren ipuin kontalaritza saioa, Mekoletako Arkotxe kultur elkarte.



**:: BERRIZ**  
KULTUR ETXEA

**Blinky Bill**  
• barikua 10: 18:00  
• domeka 12: 17:00

**:: DURANGO**  
ZUGAZA

**Cincuenta sombras más oscuras**  
• barikua 10: 19:30-22:00  
• zapatua 11: 19:30-22:30  
• domeka 12: 17:00-18:30-21:00  
• astelehena 13: 18:30-21:00  
• martitzena 14: 20:00  
• eguaztena 15: 20:00

**Rings**  
• barikua 10: 19:30-22:00  
• zapatua 11: 19:30-22:30  
• domeka 12: 19:30-21:30  
• astelehena 13: 18:30-21:00  
• martitzena 14: 20:00

**La luz entre los océanos**  
• barikua 10: 19:30-22:00  
• zapatua 11: 19:30-22:30  
• domeka 12: 18:30-21:00  
• astelehena 13: 18:30-21:00

**Ballerina (gaztelaniaz)**  
• zapatua 11: 17:00  
• domeka 12: 16:30

**Ballerina (euskaraz)**  
• zapatua 11: 17:00  
• domeka 12: 16:30

**Dentro del armario**  
• eguaztena 15: 20:30

**:: ELORRIO**  
ARRIOLA

**Paterson**  
• zapatua 11: 22:00  
• domeka 12: 20:00  
• astelehena 13: 20:00

**:: ZORNOTZA**  
ZORNOTZA ARETOA

**La ciudad de las estrellas (La La Land)**  
• barikua 10: 20:15  
• zapatua 11: 22:00  
• domeka 12: 20:00  
• astelehena 13: 20:15

**Teresa eta Galtzagorri**  
• zapatua 12: 17:00

**District zero**  
• martitzena 14: 20:15

### Otsailaren 16an, 20:30ean, Zornotzan

## Dead Combo

Fadoa, rocka, Afrikako eta Hegoamerikako musikak eta jazzaz utzartzen ditu Tó Trips gitarrista eta Pedro Gonçalves kontrabajista portugaldarrek sorturiko Dead Combo taldeak. Datorren eguenean, Zornotzako Zelaiafeta zenitroko kontzertu gelan izango dira entzungai aipaturiko musika estilo guztiak utzartuta eta Ennio Morriconeren konposizioak inspiratutzat hartuta sorturiko doinu bereziak.



**> BOTIKAK****BARIKUA, 10**  
09:00-09:00**De Diego**  
Intxaurrondo 22. - Durango**Iruarrizaga, Karmele**  
San Miguel 15 - Zornotza

09:00-22:00

**Sanchez, Miren Itziar**  
Urbitearte poligonoa, 4 P8, Abadiño**Sarasketa, Diego**  
Luis Urrangoetxea 5 - Zornotza**ZAPATUA, 11**  
09:00-09:00**Balenciaga**  
Ezkurdi plaza 8 - Durango**Iruarrizaga, Karmele**  
San Miguel 15 - Zornotza

09:00-13:30

**Gaztelumendi**  
J.A. Abasolo 2 - Durango**De Diego**  
Intxaurrondo 22. - Durango**Navarro**  
Artekalea 6 - Durango**Bazan Diaz**  
Uribarri 5 - Durango**Campillo**  
Montevideo etorb. 24 - Durango**Sagastizabal**  
Askatasun etorb. 19 - Durango**Unamunzaga**  
Muruetatorre 2C - Durango**Larrañaga-Balentiaga**  
Berrio-Otxoa 6 - Elorrio**Bartolome**  
Gabiola 2 - Berriz**Eguren, Isabel**  
Trañabarren 15 - Abadiño**Melero, Rosa Mari**  
San Pedro 31 - Zornotza

09:00-14:00

**Irigoin**  
Bixente Kapanaga 3 - Iurreta

09:00-22:00

**Sarasketa, Diego**  
Luis Urrangoetxea 5 - Zornotza**Sanchez, Miren Itziar**  
Urbitearte poligonoa, 4 P8, Abadiño**DOMEKA, 12**  
09:00-09:00**Gaztelumendi**  
J.A. Abasolo 2 - Durango**Iruarrizaga, Karmele**  
San Miguel 15 - Zornotza**Sarasketa, Diego**  
Luis Urrangoetxea 5 - Zornotza**ASTELEHENA, 13**  
09:00-09:00**Etxebarria**  
Montevideo etorb. 2 - Durango

09:00-22:00

**Sanchez, Miren Itziar**  
Urbitearte poligonoa, 4 P8, Abadiño**Iruarrizaga, Karmele**  
San Miguel 15 - Zornotza**Sarasketa, Diego**  
Luis Urrangoetxea 5 - Zornotza

22:00-09:00

**Aramburu, Maria**  
**Isabel-Guarrotxena, Javier**  
Txiki Otaegi 3 - Zornotza**MARTITZENA, 14**  
09:00-09:00**Unamunzaga**  
Muruetatorre 2C - Durango

09:00-22:00

**Sanchez, Miren Itziar**  
Urbitearte poligonoa, 4 P8, Abadiño**Iruarrizaga, Karmele**  
San Miguel 15 - Zornotza**Sarasketa, Diego**  
Luis Urrangoetxea 5 - Zornotza

22:00-09:00

**Aramburu, Maria**  
**Isabel-Guarrotxena, Javier**  
Txiki Otaegi 3 - Zornotza**EGUAZTENA, 15**  
09:00-09:00**Bazan Diaz**  
Uribarri 5 - Durango

09:00-22:00

**Sanchez, Miren Itziar**  
Urbitearte poligonoa, 4 P8, Abadiño**Iruarrizaga, Karmele**  
San Miguel 15 - Zornotza**Sarasketa, Diego**  
Luis Urrangoetxea 5 - Zornotza


22:00-09:00

**Aramburu, Maria**  
**Isabel-Guarrotxena, Javier**  
Txiki Otaegi 3 - Zornotza**EGUENA, 16**  
09:00-09:00**Mugica**  
Andra Maria 9 - Durango

09:00-22:00

**Sanchez, Miren Itziar**  
Urbitearte poligonoa, 4 P8, Abadiño**Iruarrizaga, Karmele**  
San Miguel 15 - Zornotza**Sarasketa, Diego**  
Luis Urrangoetxea 5 - Zornotza

22:00-09:00

**Aramburu, Maria**  
**Isabel-Guarrotxena, Javier**  
Txiki Otaegi 3 - Zornotza**> ZORION AGURRAK** [zorionak@anboto.org](mailto:zorionak@anboto.org)  
eguzteneko 14:00ak arteko epea**Ermodo, 11 · DURANGO**  
Tel.: 946 201 663  
[gozatudurango@gmail.com](mailto:gozatudurango@gmail.com) **Gozatu Gozotegia**

Zorionak, **Maidar Zabala!** Hamabostean behin zotz egiten dugun tarta zuri egokitu zaizu. Oparia eskuratzeko txartela gura duzunean jaso dezakezu lurretako gure egoitzan: Bixente Kapanaga, 9an.



> Zorionak, **Iara!** Otsailaren 8an 7 urte bete dituzu. Musu handi handi bat Jurgi, aita eta amaren partez.



> Otsailaren 11n **Mikel Armendiak** 6 urte egingo dauz. Zorionak eta mosu handi bat Axpe eta Mañaritik.



> Zorionak, **Amalur,** etxekoan partez! Otsailaren 14an 5 urte beteko dituzu. Maite zaitugu.



> Ondo pasau zure eguna, baina ez galdu. Pastelak ekarri eta "cava" be bai. Zorionak zure familixian partez.



> **Eiharrek** otsailaren 5ean 9 urte egin ebazan. Zorionak danon partez.



> Zorionak, **Ciriaco!** Egun on bat pasa dezazula! Muxu handi bat eta besarkada bat zure familia guztiaren partez.



> Zorionak, **Esti!** Baduzu dagoeneko zure zorion-agurra egunkarian. Disfruta ezazu zure urtegunaz. Muxu handi bat zure lagunen partez.



> Zorionak, **Irati,** zure 8. urtebetetzean! Mosu handi bat etxekoan partez eta alaitasun horregaz jarraitu.



> Zorionak, **Intza!** Gaurko egunez munduratu zinen laztana, oin dala 7 neku. Ilargiraino eta bueltan maite zaitugu! Etxeko danon partez lapiko bete mosu.



> Di-da bati pasau da azkenengo urtea eta jada 2 urtetxo egin dauz gure **Paulek.** Muxu handi bat familiaren partetik! Asteburuen ospatuko dogu behar den bezala!

**merkataritza gida**  
sarean[anboto.org/gida](http://anboto.org/gida)**Ezagutu eta erabili Durangaldeko merkataritza gida euskaraz eta sarean!**

Merkataritza gidan agertzeko deitu: 946 217 902

## “Babesleku bat da niretzat liburutegia. Ume batzuentzat ere hala izan da”

Urtarrilean jubilatuta da Marian Gallastegi, Elorrioko eskola liburutegiko liburuzaina hamar urtean

**> AKUILUA** Aitziber Basauri  
Azken hamar urteetan “babesleku” izan duen eskola liburutegian hartu gaitu Marian Gallastegik. Urduri. Oraindik “ur gaineko bitsetan”. Pozik. Jubilatuta berri da, Elorrioren kasualitatez hasitakoa. Mertxe Erizegatz hasi zen irakasle, biak egun berean, eta biek jaso dute agurra urtarrilaren 19an. Tableta eta Kirmen Uriberen liburu bat ditu poltsan.

**Urteak eman dituzu Elorrioko eskolan.**

Txiripaz sartu nintzen, 21 urte gaz. Umetako laguna nuen mutil batez egin nuen magisteritza, eta berari deitu zioten. Baina, orduan, ikasketak bukatuta soldaduska egiten zuten. Berak ezin zuenez, nire izena eman zuen. 38 urte egin ditut; azken hamarrak eskola liburutegian. 71n lehenengo ikasleak izan nituenekin harreman oso ona dut. Urtero afaria egiten dugu.

**Ematen du zure ondotik ez dela liburuzainik egongo.**

Ekainera arte, ordezkoa egongo da. Esan digutenez, jubilatzen goazen neurrian gure lanpostuak ordezkatuko dituzte, eta hurrengo ikasturtean, liburuzain lanpostua eskainiko dute. Baina, bertan irakasle den batek hartu beharko du, eta lanaldi erdikoa izango da. Irakas-kuntzan eta liburutegian jardun beharko du. Dena den, ez dago ezer idatzita inon. Nik jarduera osoa egin dut, eta eskola ordutegitik kanpo ere egon naiz, 16:00etatik 18:00etara. Etxeko lanak egitera etorri dira batzuk, laguntza behar dute-

nak, gustoz, gurasoak... Bazkalostean ere egon naiz. Luxua da. Premiazkoa deritzot, eta araututa egon beharko luke.

**Luxua dela diozu.**

Bai horixe. Batzuek badugu liburutegia, baina araututa egon beharko luke. Eskola liburutegia bezala, informatika, plastika eta ingurumen programak ere sortu zituen administrazioak duela 20 urte, baina, gero, hiltzen utzi ditu. Ermuan, pertsona bat urteetan aritu zen ingurumena lantzen. Durangoko Landakon, berriz, eskola liburutegia eta plastika programak galdu dituzte.

**Elorrioren galduko dute?**

Ari naiz animatzen eutsi diezaioten, eta irakasleek ere premiazko ikusten dute la esango nuke, baina esfortzua eskatzen du. Administrazioak apustu honi eusten ez badio, irakaslegoa antolatu beharko da, edo Guraso Elkartek egin beharko dio aurre. Hiltzen uztea penagarria litzake. Urteetan trebatu gaituzte, informatikoki liburutegia nola erabili ikasi dugu... eta orain, zer?

**Irakurzale amorratua zara?**

Beti gustatu zait. Baina, haur literaturaz ez nekien larregi, eta liburuzain lana aurkikuntza izan da. Adin guztietako umeek gustatzen zaie ipuinak entzutea, nagusiei ere

bai. Pixka bat presatutako irakurketaren aurrean lurratuta geratzen dira. Zer esan txikiak! Oso gustura egon naiz.

**Pasadizorik?**

4-5 urtekoe-kin itzelak egin ditut.



**Bizipenak asko dira.**

**Zein liburu duzu mesanotxean?**

*Elkarrekin esnatzeko ordua.* Oso gogoko dut Kirmen Uribe. Hurbila da. Lehenengo lanagaz harritu ninduen; poema liburu hura umeekin erabili dut. Bere lan denak irakurri ditut.

**Bera duzu gogokoena?**

Ez dut bat bakarra. Bernardo Atxagaren jarraitzaile amorratua izan naiz, eta Sarraionandia ere oheburuko idazlea nuen. Gaztetan irakurtzen nituen hauek asko. Saizarbitoria ere ona dela uste dut. Emakumeen artean, Miren Agur Meabe gustatzen zait, eta Kati Agirre. Belaunaldi berri oso indartsua dator. Poztekoa da. Behar genuen. Berdin ari da gertatzen haur literaturan: Alaine Agirre, Arrate Egaña... Gaztelaniaz, Sarago dugu gogokoena.

**Liburuaren artean?**

Ezin esan. *Firmin*. Liburutegi batean bizi den sagua da Firmin, liburuak janda irakurtzen ditu. Hamar urte dira liburuak hartu nuela. Ahaztuta nuen, eta agurra egin zidatenean agertu zen berrir.

**Zer iradokitzen dizu liburutegi honek? Eta liburuak?**

Babesleku bat da niretzat. Ume batzuentzat ere hala izan da. Sekretu asko kontatu dira hemen. Gauza askotaz hitz egin dugu. Hemen eroso sentitzea gura izan dut, eta autonomo izatea. Liburuak? Ikasteko balio dute, hausnartzeko... Bizipoza dira.

**Liburuak ordezkatuko dituzte teknologiak?**

Ez dut uste. Liburuak usaindu, azpimarratu, idatzi... egin daitezke. Ukitu egiten da, sentitu... norbaiti utziz gero, konpartitu. Hala ere, ez nago teknologiaren kontra. Zenbateraino erraztu dizkigun gauzak!

## LAUHORTZA

**AINHOA OLASO**

Ikaslea



**Bihotzean, kra**

Sinetsi dugu maitasuna zerbait magikoa dela, ponposoa, guk sentitutakoa benetan berezia dela, bakarra. Misteriotsutzat dugu, azalduzina delakoan. Arrazoiaren kontrakoa, kontrolaezina. Balio sinboliko eta kultural izugarria egotzi diogu, zoriontasun individual zein kolektiboaren motore nagusia bihurtu delarik.

Barneratu dugu maitasunaren bueltan gure bizimodua antolatzen, guztiaren gainetik kokatzen, eta egiten dugu. Ikasi dugu nola sentitu behar garen, nor maitatu behar dugun. Ikasi dugu nola gozatu, zein momentu eta erritmotan.

Maitasuna ahalguztiduna da, borondatearen kontrakoak diren sentimenduak eragiten dizkiguna, eta botere desoreka eternala xede duen pasioa dugu eredutzat. Sistemaren erreproduzioa erdigunean jartzen duen moldea da gurea, sexualitatearen domestikazioaren bitartez iraunarazten duguna. Emakumeon eta gizonen harremanetarako moduak ezberdintzen ditugu. Eta nola ez, maitale traketsekin kostura aberasten den industriaren parametroetan mugitzen gara, inoiz asebeteko ez gaituen kontsumoaren menpe.

Maitasunaren artea, ordea, gogoeta eta ekintzak, denbora eta espazioa, hitzak eta isilunean arreta handiz jostean datzala dio Mari Luz Estebanek. Maitatzeko teknika ikasi beharra dugula azpimarratuko nuke ere. Askotan estrategiek kutxu negatiboa hartzen duten arren, hauek beharrezkoak direla esatera ausartzen naiz. Noizean behin harremanak arrazionalki begiratu eta nola eraikitzen ditugun kontziente izatea, izan amarekin, maitalearekin edota burkidearekin, eta gero bizi!

**Smurfit Kappa**  
Central Forestal

**50 urte**  
EUSKADIKO  
PINUDIAK  
ZAINTZEN

**Smurfit Kappa**  
Nervión